


LAN HITZARMENA CONVENIO COLECTIVO

MESA (Manufacturas Eléctricas)-en HITZARMEN KOLEKTIBOA

Convenio Colectivo de
MESA (Manufacturas Eléctricas)

2024-2028



III. ATALA
EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOA

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Saila

Erabakia Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Bizkaiko Lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da Manufacturas Eléctricas, S.A. enpresaren Hitzarmen Kolektiboa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (hitzarmen kodea 48003082011989).

Aurrekariak

Telematikaren bidez aurkeztu da, ordezkaritza honetan, enpresako zuzendaritzak eta enpresa batzordeak 2024ko abenduaren 23an sinatutako akordioa.

Zuzenbideko oinarriak

Lehenengoa: Langileen Estatutu Legearen 90.2 artikulua, urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretu Legegilea (2015eko urriaren 24 EBO) aurreikusten duen eskuduntza lan agintaritza honi dagokio, azaroaren 5eko 323/2024 Dekretuko 18.2.g) artikulua — Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena (2024ko azaroaren 21eko EHAA)— dionarekin bat etorritik eta urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuarekin (2011ko otsailaren 15eko EHAA) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuarekin (2010eko ekainaren 12ko EBO) —hitzarmen kolektiboen eta berdintasun planen erregistroari buruzkoak— lotuta.

Bigarrena: Sinatutako akordioak betetzen ditu lehen aipatutako Langileen Estatutu Legearen 85, 88, 89 eta 90 artikuluek xedatutako baldintzak.

Honen ondorioz,

ERABAKI DUT:

Lehenengoa: Hitzarmen Kolektiboen Erregistroaren Bizkaiko Lurralde Atalean inskribatu eta gordailu egiteko agintzea eta aldeei jakinaraztea.

Bigarrena: Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara dadin xedatzea.

Bilbon, 2025eko ekainaren 2an.—Bizkaiko Lurralde Ordezkaria, Verónica Fernández Fernández

1. Egonkortasuna lan-harremanen eta gizarte-bakearen esparruan, eta gatazkak ebazteko prozedura

Zuzendaritzak eta Enpresa Batzordeak erabaki dute beharrezkoa dela Enpresa barruko lan-harremanen eta gizarte-bakearen esparruan egonkortasuna ziurtatzea.

Horretarako, bi aldeek adostu dute Langileen Estatutuaren 82.3 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, Enpresak ezingo diola uko egin hitzarmen kolektibo honetan xedatutako lan-baldintzak aplikatzeari, baldin eta bestelakorik adosten ez bada langileen legezko ordezkariekin.

Aurreko paragrafoan adierazitakoaren ordainetan, Enpresa Batzordeak konpromisoa hartzen du hitzarmen honen interpretazioan edo aplikazioan edo hau ordezkatu duen etorkizuneko hitzarmen, itun edo akordio kolektiboa negoziatzean gerta daitekeen edozein desadostasuni irtenbidea emateko, adiskidetze-prozedura jarraitzeko eta, ondoren, PRECOren araudian xedatutako bitartekaritza, greba-eskubidea gauzatu baino lehen; horrela, berariaz uzten da alde batera nahitaezko arbitrajea.

Horrenbestez, Enpresa Batzordeak lehendabizi adiskidetze-prozedura jarriko du abian, eta, gero, PRECOren araudian xedatutako bitartekaritza. Bide horiek agortu ondoren, izan «adostasunik gabe» (desadostasunari irtenbidea emateko akordiorik lortu ez delako), izan «ondoriorik gabe» (Enpresa ez delako bertaratu PRECOk egindako deialdira), Enpresa Batzordeak greba-eskubidea baliatu ahal izango du, unean-unean indarrean dagoen araudian xedatutako balditzetan.

Bitartekaritza-faseari dagokionez, aldeek (Enpresa eta langileen ordezkariak) adostu dute bitartekaritza hori gauzatzea bitartekariak idatziz proposamenik egin gabe, baldin eta kontrakoa ez bada idatziz adierazten fase horretan bertan. Hortaz, aukeratutako bitartekariak ezin izango du Enpresa Batzordeak balizko greba egiteari buruzko txostenik egin edo irizpenik eman, ez bada sortutako desadostasuna konpontzen adiskidetze-prozeduran lehendabizi eta bitartekaritza-prozeduretan gero.

1 bis. Hitzarmena ez aplikatzea

Langileen Estatutuko 82.3 artikuluan xedatutakoa betetze aldera, bi aldeek adostu dute Enpresak bere kabuz ezingo diola inola ere aplikatzeari utzi hitzarmen kolektibo honetan xedatutako lan-baldintzak, baldin eta ez bada bestelakorik adosten langileen legezko ordezkariekin. Horrezaz gain, hitzarmenaren indarraldia amaitu baino lehen, berriro negoziatzen saiatuko dira haren ordezeko bat adosteko edo hura berriro aztertzeko, Langileen Estatutuaren 86.1 artikuluan xedatuta bezala.

Enpresak hitzarmen kolektibo hau aldi batean ez aplikatzeko asmoa badu (arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolamendukoak edo ekoizpenekoak direla eta), langileen ordezkariekin horretarako akordiorik lortzen ez badu, eta gatazkak ebazteko prozeduretara jota ere (hitzarmen honen 1. artikulua araberak) desadostasuna konpontzen ez bada, bi alderdien (enpresaren ordezkarien eta langileen ordezkarien gehiengoaren) arteko akordioa beharko da, hitzarmena ez aplikatzeari buruzko desadostasuna ORPRICCEren (estatutuaren araberako hitzarmen kolektiboak aplikatzen ez direnean prozedurak ebazteko organoa) edo etorkizunean hura ordezkatu dezakeen organoaren (estatutuaren araberako hitzarmen kolektiboak aplikatzen ez direnean prozedurak ebazteko organoa) esku jartzeko.

2. Langile-esparrua

Hitzarmen honek Manufacturas Electricas, S.A.U., Enpresako plantillako langile guztiak hartuko ditu bere baitan, bai eta langile berriak ere. Honako hauek, ordea, ez ditu bere baitan hartuko: lan-arloko legeriak («Langileen Estatutuaren» 1. artikuluko 3-c puntua) arautzen duen eremutik kanpoko langileak, abuztuaren 1eko 1382/1985 Errege Dekretuak araututako goi-mailako zuzendaritzako langileak, eta 1. eta 2. lanbide-taldeetako langileak.

3. Indarraldia, iraupena eta amaiera iragartzea

Hitzarmen hau sinatzen den egunean jarriko da indarrean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean zein egunetan argitaratzen den kontuan izan gabe. Ondorio ekonomikoek 2024ko urtarrilaren 1era arteko atzeraeragina izango dute.

Hitzarmen honek bost urte iraungo du, hau da, 2028. urteko abenduaren 31 arte.

Langileen Estatutuaren 86.3 artikuluan xedatutakoa betez, hitzarmen honen hasierako indarraldia amaitutakoan, haren edukia indarrean jarraituko du hura ordeztuko duen beste bat indarrean jarri arte.

2028ko azaroaren 15etik aurrera joko da hitzarmen honen indarraldia amaitutzat automatikoki.

Hitzarmen honen indarraldia amaitu baino hamabost egun lehenago osatuko da, beranduenez, negoziazio-batzordea, eta hitzarmen honen indarraldiaren amaiera-datatik hasita hurrengo hamabost egun naturaletan aurkeztuko dira plataformak. Negoziazioari ez zaio ezein kasutan ekingo hitzarmenaren indarraldia bukatu eta hilabete iragan ondoren.

4. Lanaldia

4.1. Urteko lanaldia

Hitzarmena indarrean dagoen bitartean, lanaldia urtean benetan lan egindako 1.680 ordukoa izango da (*), hau da, lanaldiaren barruan ez dira zenbatuko ogitartekoa jateko denbora eta, hala badagokio, langileek egin ditzaketen atsedendialdiak (* aurrerago zehazten diren salbuespenekin).

4.2. Lan-araubidea, lanaldia eta ordutegia

Lan-araubidea, oro har, honako hau izango da:

4.2.1. Tailerrerako: Lanaldi jarraitua edo/eta txandakako lanaldia.

4.2.2. Bulegoetarako: Neguko lanaldia edo udako lanaldia.

4.2.3. FAT, Erletxeko lantokia, Mungiako biltegi nagusia eta materialen harreraren kalitatea.

4.2.1 Tailerra

1. Aplikazio-eremua

Jarraian deskribatzen den erregulazioak tailerreko langile guztiei eragingo die, honako hauetako langileei izan ezik: FAT, Erletxeko lantokia, Mungiako biltegi nagusia eta materialen harreraren kalitatea.

2. Lan-araubidea

Tailerreko langileek lanaldi jarraituko araubidean edo txandakako lan-araubidean emango dituzte zerbitzuak, enpresaren antolamendu- edo produkzio-inguruabarrak kontuan hartuta.

3. Erreferentziako eguneko lanaldia

Bi kasuetan, erreferentziako eguneko lanaldia benetako laneko 7 ordu eta 45 minutuko izango da.

4. Erreferentziako ordutegia

A. Lanaldi jarraitua.


Lanaldi jarraituko araubidean lan egiten denean, langileek eguneko lanaldia honako ordu-tarte honetan egin beharko dute: 06:00etatik 13:45era.

Atal honetan araututako lanaldi jarraitua goizeko ordutegian soilik aplikatuko da.

Tarte horren barruan, langileak askatasunez aukeratu ahal izango du zer ordutegitan egiten duen egunero bere zerbitzua, eta bermatuko du bere zerbitzua beranduenez 7:00etan hasiko dela eta goizen 13:45ean amaituko dela.

Erreferentziako eguneko lanaldi horren barruan, eguneko 15 minutura arteko atsedendialdi sartzen da, eta benetako lantzat hartuko da ondorio horietarako bakarrik.

Hobeto ulertzeko, hona hemen egoera hori azaltzen duen grafikoa:



4.3. artikuluan araututako flotazio-araubidea aplikatuz benetako lanaldia 8 ordu eta 45 minutura iristen den egun zehatzetan, aurreko paragrafoan deskribatutako atsedenaldea eguneko 25 minutura artekoa izango da, eta benetako lantzat hartuko da ondorio horietarako soilik.

Aurreko paragrafoetan deskribatutakoez gain, langile guztiek egin ditzaketan atsedenaldiak eguneko lanaldiaren barruan berreskuratu beharko dira.


Enpresak langileen eta aginte-lerroaren esku utziko du atsedenaldeen autokudeaketa eta horien erabilera arduratsua eta antolatua, eta eskubidea izango du atsedenaldi horien kudeaketa antolatuko eta kontrol digitaleko sistemak ezartze-ko, desbideratzeak eta/edo antolaketa-/ekoizpen-inpaktuak antzemanaz gero.

Horri dagokionez, honako hauek hartuko dira «desbideratzeak eta/edo antolaketa-/ekoizpen-inpaktuzat» (adierazpide moduan):

- Atsedenaldiak aurreko paragrafoetan finkatutakoak baino aldi luzeagoetan erabiltzea, behin eta berriz.
- Atzerapenak sortzea produkzio-programan, koordinaziorik ezaren edo atsedenaldiak luzaroan erabiltzearen ondorioz.

B. Txandakako lanaldia.

Lanaldi jarraituko araubidean lan egiten denean, langileek erreferentziako eguneko lanaldia honako ordu-tarte honetan egin beharko dute, lehen adierazitako irizpide orokorrak jarraituz:



Erreferentziako eguneko lanaldi horren barruan, eguneko 15 minutura arteko atsedenaldia sartzen da, eta benetako lantzat hartuko da ondorio horietarako bakarrik.

4.3. artikuluan araututako flotazio-araubidea aplikatuz benetako lanaldia 8 ordu eta 45 minutura iristen den egun zehatzetan, aurreko paragrafoan deskribatutako atsedenaldia eguneko 25 minutura artekoa izango da, eta benetako lantzat hartuko da ondorio horietarako soilik.

Aurreko paragrafoetan deskribatutakoez gain, langile guztiek egin ditzaketen atsedenaldiak eguneko lanaldiaren barruan berreskuratu beharko dira.

Enpresak langileen eta agente-lerroaren esku utziko du atsedenaldien autokudeaketa eta horien erabilera arduratsua eta antolatua, eta eskubidea izango du atsedenaldi horien kudeaketa antolatuko eta kontrol digitaleko sistemak ezartzeko, desbideratzeak eta/edo antolaketa-/ekoizpen-inpaktuak antzemanaz gero.

Horri dagokionez, honako hauek hartuko dira «desbideratsetzat eta/edo antolaketa-/ekoizpen-inpaktutat» (adierazpide moduan):

- Atsedenaldiak aurreko paragrafoetan finkatutakoak baino aldi luzeagoetan erabiltzea, behin eta berriz.
- Atzerapenak sortzea produkzio-programan, koordinaziorik ezaren edo atsedenaldiak luzaroan erabiltzearen ondorioz.

Asteko txandakako araubidean lan egiten denean, eguneko txanda-plusa ordainduko zaie sistema horren pean lan egiten duten pertsona guztiei, goizeko txandak goizeko lanaldi jarraitu esklusiboaren antzeko ordutegia izan arren.

4.2.2 Bulegoa

1. Aplikazio-eremua

Bulegoko langileen artean sartzen dira enpresaren bulegoetan lan egiten duten langile guztiak.

2. Lan-araubidea

Bulegoko langileek honako lan-araubide honetan jardungo dute:

A. Neguko lanaldia.

Urteko hilabete guztietan aplikatuko da, uztailean eta abuztuan izan ezik, eta honako lan-araubide hau izango du:

- Astelehenetik ostegunera lanaldi etena.
- Lanaldi jarraitua: ostiraletan.

B. Udako lanaldia.

Uztailean eta abuztuan aplikatuko da.

3. Erreferentziako eguneko lanaldia eta erreferentziako ordutegia

A. Neguko lanaldia.

Eguneko lanaldia benetan lan egindako 7 ordu eta 45 minutukoa izango da, eta asteko zenbaketan 38 ordu eta 45 minutukoa.


Aurrekoa alde batera utzi gabe, bulegoko lana antolatzea eta bizitza profesionala eta familiarra bateragarri egitea errazte aldera, ezartzen da lehen aipatutako erreferentziako asteko lanaldia –38 ordu eta 45 minutukoa– honela banatuko dela:

- Astelehenetik ostegunera: 8 ordu eta 9 minutu.
- Ostiraletan: 6 ordu eta 9 minutu.


Hori guztia, beherago jasotako grafikoetan aurreikusitako malgutasuna alde batera utzi gabe.

Nolanahi ere, lanaldi zatituko araubidean egingo da lan astelehenetik ostegunera, eta erreferentziako eguneko lanaldia honako ordu-tarte honetan egin beharko da: 7:20tik 18:30era, hurrengo grafikoan deskribatutako moduan. Era berean, langile bakoitzak 30 minutura arteko atsedenaldira hartzeko eskubidea izango du bazkaltzeko —ez da lan eraginkortzat hartuko—.

Hobeto ulertzeko, hona hemen egoera hori azaltzen duen grafikoa.



Lanaldi jarraituko araubidean egingo da lan ostiraletan, eta erreferentziako eguneko lanaldia honako ordu-tarte honetan egin beharko da: 7:20tik 17:00etara, hurrengo grafikoan deskribatutako moduan.



Lanaldi jarraituan, eguneko 15 minutura arteko atsedenaldira sartzen da, eta benetako lantzat hartuko da ondorio horietarako bakarrik.

B. Udalako lanaldia (uztaila eta abuztua):

Lanaldi jarraituko araubidean emango dira zerbitzuak, astelehenetik ostiralera, uztailean eta abuztuan, eta erreferentziako eguneko lanaldia honako ordu-tarte honetan egin beharko da: 6:00etatik 13:45era, hurrengo grafikoan deskribatzen diren baldintzetan.

6:00	7:45	15 min	13:45	15:30
------	------	--------	-------	-------

7h45



- 4.2.3. FAT, Erletxeko lantokia, Mungiako biltegi nagusia eta materialen harreraren kalitatea
- A. *FAT*: eginkizun horietan lan egiten duten langile guztiak tailerreko gainerako langileen antzeko ordutegia izango dute (lanaldi jarraitua/txandakako lanaldia), FAT egunetan izan ezik, horietan lanaldi zatituko ordutegira igaroko baitira, «4.2.2.3.A. Neguko lanaldia» atalean araututakoaren arabera.
 - B. *Erletxeko lantokia*: Erletxeko biltegian lan egiten duten langile guztiak tailerreko gainerako langileen antzeko ordutegia izango dute (lanaldi jarraitua/txandakako lanaldia), esportazioa jaso edo igortzen den egunetan izan ezik, horietan lanaldi zatituko ordutegira igaroko baitira, «4.2.2.3.A. Neguko lanaldia» atalean araututakoaren arabera.
 - C. *Mungiako biltegi nagusia*: Mungiako biltegi nagusian lan egiten duten langile guztiak tailerreko gainerako langileen antzeko ordutegia izango dute (lanaldi jarraitua/txandakako lanaldia), salbu eta beren lan-kontratuan hitzartuta badaukate lanaldi zatituan lan egin ahalko dutela, kasu horietan lanaldi zatituko ordutegira igaro ahalko baitira, «4.2.2.3.A. Neguko lanaldia» atalean araututakoaren arabera.
 - D. *Materialen harreraren kalitatea*: eginkizun horietan lan egiten duten langile guztiak tailerreko gainerako langileen antzeko ordutegia izango dute (lanaldi jarraitua/txandakako lanaldia), enpresak zerbitzua bermatzeko lanaldi zatitua beharrezkoa dela zehazten duen egunetan izan ezik, horietan lanaldi zatituko ordutegira igaroko baitira, «4.2.2.3.A. Neguko lanaldia» atalean araututakoaren arabera.

4.3. *Ordutegi-malgutasuna*

Lanaldiaren sarreran eta/edo irteeran ordutegi-malgutasuna ezartzen da, langileen bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa bateragarri egiten laguntzeko, enpresaren produktibitateari kalterik egin gabe.

Ordutegi-malgutasuna honako hau izango da:

- 4.3.1. Lanaldi jarraitua tailerrean: ordubete sarreran eta irteeran. Sarrera: 6:00etatik 7:00etara. Irteera: 13:45etik 14:45era.
- 4.3.2. Txandakako lanaldia: 15 minutu txanda bakoitzeko irteeran eta sarreran.
Goizeko txanda: Sarrera 6:00etatik 6:15era. Irteera 13:45etik 14:00etara
Arratsaldeko txanda: Sarrera 14:00etatik 14:15era. Irteera 21:45etik 22:00etara.
Gaueko txanda: Sarrera 22:00etatik 22:15era. Irteera 05:45etik 6:00etara
- 4.3.3. Neguko lanaldia bulegoetan:
Sarrera: Ordubete eta 30 minutu. 7:20 – 08:50.
Eguerdiaren: 12:50etik 14:30era, 30 minutuko nahitaezko atsedendialdiarekin.
Irteera: 2 ordu eta 30 minutu. 16:00 – 18:30.
- 4.3.4. Udako lanaldia bulegoetan: ordubete sarreran eta irteeran. Sarrera: 6:00etatik 7:45etara. Irteera: 13:45etik 15:30era.

Jarraian azalduko dira MESAn ordutegi-malgutasuna erabiltzeko arauak.

- Ezin izango da ordutegi-malgutasunik egin segurtasun-arrazoiengatik langile batek bere lana banaka egin ezin duen lanpostuetan. Langile batek konpainiarik gabe lan egin badezake malgutasunaren barruan, txanda-aldietan, aparteko orduetan eta abarretan ere berdin egin ahal izango da, lanpostuaren arriskuen ebaluazioan kontrakoa adierazten ez bada.
- Sarrera- eta irteera-fitxaketak behar bezala egin behar dira. Hau da, ez da bonuaren hasierarik markatu behar lanean hasteko moduan egon gabe, hau da, laneko arropa jantzi, norbera babesteko ekipamendua eduki eta lanpostuan egon gabe, eta irteera laneko arroparekin eta lanpostuan egonda markatu behar da.
- Lanpostuan sartzean edo lanetik irtetean fitxaketa bat ahazteak egun horretako malgutasuna baliogabetzen du.
- Harrera batean bezero batekin parte hartzen duten langileek ezin izango dute lanaldiaren une batean ere malgutasuna erabili (sarrera edo eguerdia) harrera-egunean, bezeroarekin ahalik eta denbora gehien egon ahal izateko fabrikari.
- Sartzeko malgutasuna aldi baterako eten daiteke, MESAk antolatutako prestakuntza-ikastaroetara, komunikazioetara, inbentarioetara, entseguetara edota ekitaldietara joateko (arloko arduradunak jakinarazi ondoren).
- Prestakuntza- edo egokitze-aldian dauden langileek ezin izango dute sartzeko eta irteteko malgutasunez baliatu, beren jardunean behar besteko autonomia lortu arte. Lanaldi barruan malgutasuna erabiltzen hasteko baimena team leader delakoak emango du. Une horretan, horren berri eman beharko du, presentzia kontrolatzeko sistema informatikoan malgutasuna erabiltzeko behar den marka sartzeko.
- Ordaindutako lizentzien ondorioz (medikua, arrazoi sindikala, ordu libreak, etab.) sarrera- edo irteera-markarik ez badago eta egun horretan malgutasuna baliatu nahi bada, malgutasun hori sarrera/irteeran egin ahal izango da, baldin eta malgutasunik gabeko lanaldi baten aldean benetan lan egindako orduetan murrizketarik ez badago.

4.4. Flotazio-orduak

Enpresaren ekoizpen-gaitasuna une bakoitzean dagoen lan-kargara egokitzeko eta merkatuaren berehalako eskakizunei erantzuteko beharra asetze aldera (bi zirkuntantzia horiek flotazio-orduen poltsa sortzeko espiritua eta helburua dira), enpresak, 7 egun naturaleko aurrerapenarekin idatziz jakinarazita eraginpeko langileei eta enpresa-batzordeari, lanaldia modu irregularrean banatu ahal izango du, eta lanaldia (eguneko edo/eta asteko) eta egutegia aldatu ahal izango ditu, jarraian adierazitakoaren arabera:

- 1) Definizioa eta irismena.
Enpresak langileen eguneko eta/edo asteko lanaldia aldatu ahal izango du, gehienez ere 69,75 ordura arte urtean.
Aldaketa hori honako hau baino ezin izango da izan: lan-egutegian eguneko eta/edo asteko lanaldi gisa hasieran ezarritakoaren azpitik dauden lanorduak egitea (aurrerantzean, «flotazio negatiboa») eta ondoren berreskuratzea.
Flotazio-orduen poltsa handitu ahal izango da, Enpresak eta Enpresa Batzordeak hala adosten badute.
- 2) Flotazio-orduen erabilera.
Enpresak flotazio negatiboko orduen poltsa erabili ahal izateko, idatziz jakinarazi beharko die Enpresa Batzordeari eta eraginpeko langileei, aldatzen den lanaldia hasi baino 7 egun natural lehenago gutxienez.
- 3) Erabilitako flotazio-orduak berreskuratzea.
Enpresak erabiltzen dituen flotazio-orduak berreskuratu egingo dira ordu horiek egin eta hurrengo hamabi hilabete naturaletan. Epea amaitzean, iraungi egiten dira.

Flotazioarekin 8:45o 5 egun astean	5h	5h15	9h45	25 min	13h 45	14h
	← 8h45 →					

Flotazioarekin 8:45o 5 egun astean	14h	14h15	18h15	25 min	22h 45	23h
	← 8h45 →					

- Urte natural bakoitzeko 114 ordura mugatzen da enpresak langileari eska diezaiokeen ordu-kopurua, aldez aurretik aplikatutako flotazio-ordu negatiboak berreskuratzeagatik eguneko edo asteko gehieneko lanalditik gora lan egin dezan.
- Enpresak flotazio-ordu negatiboak erabiltzen dituenean, ordu horiek lanaldi osoetan metatuta erabili beharko dira, Batzorde Paritarioarekin bestelako akordiorik hartu ezean. Flotazio-ordu negatiboak astean gehienez ere 3 egunez hartu ahal izango dira (asteazkena, osteguna eta ostirala).
- Enpresak ezin izango dio langile jakin bati eskatu egun jakin batean flotazio-ordu negatiboak berreskuratzeko ordaindutako lizentziak erabiltzeagatik edo egun horretan bertan greba-eskubidea erabiltzeagatik lan egin ez duen orduak konpentsatzeko.
- Enpresak ezingo dio eskatu langile jakin bati flotazio-ordu negatiboak egin ditzala langileak aparteko orduak egiten dituen egun berean.
- Aldez aurretik egindako ordu negatiboak berreskuratzeak ez du esan nahi langile jakin batek lan egin behar duenik flotazio-orduen poltsa aplikatu ezean asteko atsedena, jaiegunak, oporrak edo doikuntza-egunak egokituko litzaizkioken egunetan.
- Enpresak, hiru hilean behin, flotazio-orduen erabileraren bilakaeraren berri emango dio Batzorde Paritarioari.
- Beren magnitude eta/edo intentsitateagatik lana benetan ematea eragozten duten ezbehar eta/edo fenomeno atmosferikoen kasuan, Enpresak flotazio-ordu negatiboak erabili ahal izango ditu, oro har aurreikusitako 7 egun naturaleko aurreabisu-epeari eta orduko balioari men egin gabe, betiere Batzorde Paritarioaren adostasuna lortuz gero.

5. Lan-egutegia

Hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean, lan-egutegia 2025eko lan-egutegian jasotako jarraibideen arabera egingo da. Hona hemen egutegia:

2025 EGUTEGIA
URTEKO LANALDIA 1680 O

Enpresak eta langileen legezko ordezkariak honako arau hauek adostu dituzte egutegi honetarako eta etorkizuneko egutegietarako:

- a) Urtean guztira 20 ordu libre edo gehiago (? 20 ordu libre) dituzten egutegietarako, gutxienez ? 1 ordu bat hartu beharko da.
- b) Urtean 20 ordu libre (< 20 ordu) baino gutxiago dituzten egutegietarako, orain arte bezala, ? 0,5 ordu hartu ahal izango dira.

Egun arrosak formalki eskatu behar dira dagokion tresna informatikoaren bidez.

Hilabetea / Mes	Egunak / Dias 7,75	Orduak / Horas
URTARRILA / ENERO	19,5	151,125
OTSAILA / FEBRERO	20	155
MARTXOA / MARZO	21	162,75
APIRILA / ABRIL	16	124
MAIATZA / MAYO	21	162,75
EKAINA / JUNIO	20	155
UZTAILA / JULIO	21	162,75
ABUZTUA / AGOSTO	11	85,25
IRAILA / SEPTIEMBRE	22	170,5
URRIA / OCTUBRE	23	178,25
AZAROA / NOVIEMBRE	20	155
ABENDUA / DICIEMBRE	17,5	135,63
GUZTIRA / TOTAL	232	1.798
Opor-egun malguak / Días flexibles de vacaciones	13	100,75
GUZTIRA / TOTAL	219	1.697,25
Ordu libre / Horas Libres		17,25
Lanegunak / Días de trabajo		219

Berreskuraezinak	
Oporrak	
Larunbatak / Igandeak	
Tokiko / Probintziako Jaieguna	
Tokiko / Probintziako Jaieguna	
Atal eta Sail Bakoitzak Zehaztu Beharreko Egun Malguak	

Urtarrila / Enero						
L	M	X	J	V	S	D
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

151,13 h

Otsaila / Febrero						
L	M	X	J	V	S	D
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28		

155 h

Martxoa / Marzo						
L	M	X	J	V	S	D
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

162,75 h

Apirila / Abril						
L	M	X	J	V	S	D
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

124 h

Maiatza / Mayo						
L	X	M	J	V	S	D
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

162,75 h

Ekaina / Junio						
L	M	X	J	V	S	D
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

155 h

Uztaila / Julio						
L	M	X	J	V	S	D
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

162,75 h

Abuztua / Agosto						
L	M	X	J	V	S	D
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

85,25 h

Iraila / Septiembre						
L	M	X	J	V	S	D
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

170,5 h

Urria / Octubre						
L	M	X	J	V	S	D
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

178,25 h

Azaroa / Noviembre						
L	M	X	J	V	S	D
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

155 h

Abendua / Diciembre						
L	M	X	J	V	S	D
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

135,63 h

Hitzarmen kolektiboa indarrean dagoen bitartean, abenduaren 24a eta 31 ez dira lanegunak izango.

Aste Santurako eta Gabonetarako finkatutako egutegiko «egun malguak» (egun arrosak) eskatzeko prozedura honako hau izango da:

- (egun arrosak) Gabonetako egun malguak (abendua edo urtarrila): langileek abenduan edo urtarrilean hartu nahi dituzten egunak eskatu beharko dituzte urte ba-koitzeko azaroko lehen lanegunerako. Enpresak gehienez ere abenduaren 10ean erantzungo dio eskaerari.
- (egun arrosak) Aste Santuko egun malguak (Aste Santua edo Pazko Astea): langileek Aste Santuan edo Pazko Astean hartu nahi dituzten egunak urtarrilaren 31rako eskatu beharko dituzte. Enpresak gehienez ere otsailaren 28/29an erantzungo dio eskaerari.
- Egutegiko egun malguak deiturikoetan (egun arrosak), lineen funtzionamendua ekoizpen-premien arabera behar besteko normaltasunez bermatzeko beharrezkoak diren pertsonak/lanpostuek jarraitu beharko dute zerbitzuak ematen.

Enpresak egingo du urteko lan-egutegia, Batzordearen laguntzarekin.

Egutegian sartutako egun libreak horiek sortu ondoko urtearen urtarrilaren 31 baino lehen hartu beharko dira.

Horretarako, behar adinako aurrerapenez jakinarazi beharko diete langileek beren nagusiei. Nolanahi ere, ahal den neurrian ez dira pilatuko ordu horiek azaroan, abenduan eta hurrengo urteko urtarrilean.

Orduak hilabete horietan hartu nahi izanez gero, 2 hilabete lehenago eskatu beharko dira eta, gainera, urtarrilean ezin izango dira hartu jaiegun baten aurreko edo ondorengo egunetan.

Egutegian ezarritako ordu libreak 20 ordu edo gehiago badira, ordubeteko edo ordubete baino gehiagoko zatitan hartu beharko dira. Ordu libreak gutxiago badira, ordu erdiko edo ordu erdi baino gehiagoko zatitan hartu ahalko dira.

Lan-egutegian aurreikus daitezkeen ordu librean, egun arrosen eta egun grisen kopurua bat badator akordio honetan ezarritako lanaldi osoari dagozkion ordu-kopuruaren gainetik egindako lan-ordu gehigarriekin, ordu-kopuru hori banan-banan doituko zaie egutegian finkatutako ordu guztiak bete ez dituzten langileei, edozein dela bete ez izanaren arrazoa (aldi-baterako ezintasuna, eszedentziak, lanaldi partziala, etab.).

Langile batek dagozkionak baino ordu libre gehiago hartzen baditu, edozein dela horren arrazoa, alde hori soldatetik kenduko zaio, baldin eta Enpresak eta langileak, ekoizpen- edo antolamendu-arrazoiak tarteko, ez badute ordu horiek zerbitzuak eman berreskuratzea adosten.

Abenduan langilea aldi baterako ezintasun-egoeran badago, hurrengo urteko lehenengo hiruhilekoan baliatu ahal izango ditu ordu libreak.

Era berean, ordu libreak horiek sortu ondoko urteko lehen hiruhilekoan hartu ahalko dira, baldin eta lanaldi-soberakina urteko azken hiruhilekoan gertatzen bada.

Inbentarioko egun libreei dagokienez, egun horiek baliatzeko irizpide berari jarraituko zaio, hau da, urte horretan hartu beharko dira, salbu eta inbentarioa egin behar bada, eta parte-hartzea azken hiruhilekoan zehazten bada (gainditzen ez den auditoretza bada). Kasu horretan, egoera horrek eragiten dien langileek hurrengo urteko martxoaren 31 arteko epea izango dute egun horiek baliatzeko.

6. Oporrak

1. Urteko oporraldia 22 lanegunekoa izango da, eta dagokion urteko irailaren 1etik hurrengo urteko abuztuaren 31ra bitartean sortuko dira.

2. Urteko oporrak sortzapena amaitzen den urte naturalaren barruan hartu beharko dira.

3. Ekitaldi bakoitzean behar den produkzio-jarduera ziurtatu beharko da, gutxienez, abuztuko 15 egun naturaletan.

Horretarako, epe horretan, lineen funtzionamendua ziurtatzeko behar diren pertsonak/postuek zerbitzuak ematen jarraitu beharko dute, ekoizpen-premien arabera normaltasun nahikoarekin.

Produkzio-jarduera erabat geldiaraziko da abuztuko beste 15 egun naturaletan, mantentze-lanetarako izan ezik.

Ezusteko arrazoiak direla-eta abuztuan 15 egunetan zerbitzuak eskaini behar badira Enpresan eta bi hilabete baino gutxiago falta badira oporrak ezarritako egunetan hartzeko, Enpresak behar den langileekin hitz egingo du, bi aldeak ados jarrita, zerbitzu hori eskaini beharreko egunak ezartzeko, baita opor-egun berriak noiz baliatuko diren zehazteko ere. Aldaketa horrek tartean hartzen dituen pertsonen eragindako gastuak ordainduko zaizkie, betiere dokumentu-bidez justifikatzen badituzte.

Aurreikusi gabeko egoerak direla-eta ezin bazaie hilabeteko aurrerapenez jakinarazi, egoera horrek eragiten dion langile bakoitzarekin akordio batera iritsi beharko du Enpresak, abuztuan zerbitzuak eman ditzaten; gainera, 43,82 euro gordinoko ordaina (2024an) erantsiko zaie lan egindako egun bakoitzeko, «haborokin» kontzeptupean. Haborokin hori ekitaldi bakoitzerako hitzartutako soldata-igoeraren arabera eguneratuko da urtero.

Oporraldiari kentzen zaion aldia (22 lanegunekoa) urteko beste hilabete batzuetan hartu ahal izango da.

4. Oporrak eskatzeko prozedura honako hau izango da:

- Udako oporren egutegia (ekaina, uztaila, abuztua eta iraila) otsailaren 28/29rako ezagutu beharko da. Langileek urte bakoitzeko urtarrilaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dituzte eskabideak. Enpresak urte bakoitzeko otsailaren 28/29a baino lehen erantzungo dio eskaerari.
- Jarduerari eusteko beharrezkoak diren rolak zehaztuta, langileek beraiek erabakiko dute beren artean zelan hartu egun horiek, eta desadostasunik badago, managerrak erabakiko dute.
- Udatik kanpo hartu nahi diren oporretarako, oporrak hartzeko aukeratutako lehenengo eguna baino gutxienez 5 aste lehenago egin beharko da eskaria. Enpresak, gehienez ere, oporrak hartzeko aukeratutako lehen eguna baino 4 aste lehenago erantzungo du.
- Salbuespen gisa, langileek egun solteetan hartu ahal izango dituzte oporrak –hau da, egun 1etik 4 lanegunera bitarteko blokeetan multzokatuta–, eta, horretarako, gutxienez 9 egun natural lehenago eskatu beharko dute. Enpresak gehienez 6 egun naturaleko epean erantzungo dio eskaerari, hura onartuz edo baztertuz.
- Urteko opor-egutegia egin ondoren, ezin izango da aldatu, alderdiek hala adosten ez badute eta oporrak hartzeko gutxienez 2 hilabeteko aurreabisu-aldia errespetatzen ez bada.

Ezusteko inguruabarrengatik ezin bazaie eraginpeko pertsonen gutxienez hilabete lehenago jakinarazi, banakako adostasuna beharko da, eta 2024an eguneko 43,82 euro gordinekin konpentsatuko zaie, «haborokin» gisa lan egindako egun bakoitzeko. Haborokin hori ekitaldi bakoitzerako itundutako soldata-igoeraren arabera eguneratuko da.

Hori guztia, logikoa denez, hilabete baino gehiagorako eskatu eta onartu behar diren oporraldietan soilik aplikatuko da.

5. Hitzarmen hau indarren dagoen bitartean, honako formula honen arabera ordainduko dira oporrak:

- Soldata, oporraldiaren egun naturalei dagokiena.
- Dagokion antzinasun-plusa.
- Hitzarmen Plusa, oporraldiaren barnean laneguntzat hartzen diren egunei dagokiena.
- Ekoizpen-saria, oporraldiaren barnean laneguntzat hartzen diren egunei dagokiena eta Bedaux eskalako 80 puntuko errendimenduaren arabera ezarria.
- Langile bakoitzak eduki ditzakeen lansari-kontzeptuak.

6. Langileak gutxienez aurreko 3 hilabete osoetan txandakako lan-sistemaren pean lan egin badu, abuztuan benetan lan egiten duen egunetan txandakako lanagatiko konpentsazioa jasotzen jarraituko du, nahiz eta lan-sistema horren mende ez egon.

7. Oporrak ordaintzeari eta hartzeari dagokienez, lan egindakotzat hartuko dira gaitasunagatiko, amatasunagatiko zein istripuagatiko baja dela-eta lanera huts egindako egunak.

8. Oporraldian langilea aldi baterako ezintasun-egoeran badago, Langileen Estatuak 38.3 artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan ezarritakoa beteko da.

7. Ordaindutako lizentziak

1. Langileen Estatuaren 37. artikuluan xedatutakoaren arabera arautuko dira ordaindutako lizentziak, ondoren azaltzen diren aldaketekin, arrazoi jakinengatiko denboraldiari dagokionez:

- a) Ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen eta odolkidetasunezko seme-alaben heriotzagaratik, 5 egun natural. Arrazoi hori dela-eta, lantokia dagoen udalerritik

100 kilometro baino gehiagoko bidaia egin behar bada langileak, adierazitako epea 2 egun natural gehiago luzatuko da.

- b) Gurasoen, ezkontzazko seme-alaben, anai-arreben, biloben eta aitona-amonon heriotzagatik, odolekoak zein ezkontzazkoak (ezkontzagatik edo izatezko bikoteagatik), egutegiko 3 egun (horietatik 2 lanegunak izango dira). Arrazoi hori dela-eta lantokiaren udal-mugatik 100 kilometro baino gehiagoko bidaia egin behar bada, aurreko epea 2 lanegun luzatuko da.
- c) Ezkontidearen, izatezko bikotekidearen edo odolkidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko bigarren mailarainoko ahaideen ospitaleratzeagatik edo gaixotasun larriagatik, izatezko bikotekidearen odol-ahaidetasunezko ahaidea barne, bai eta aurrekoak ez diren beste pertsona batzuen kasuan ere, betiere langilearekin etxebizitza berean bizi badira eta horiek benetan zaindu behar badira, 5 lanegun. Arrazoi beragatik ordaindutako beste lizentzia bat hartzeko eskubidea izango du langileak, baldin eta aurreko lizentziatik 30 egun natural igaro badira.

Lizentzia hori modu zatikatuan baliatu ahal izango da, gutxienez lanaldi erdiko zatitan (goizez edo arratsalde), ospitaleratzeak edo gaixotasun larriak iraun tartean.

- d) Odolkidetasunezko edo ezkontzazko gurasoen, seme-alaben, eta anai-arreben ezkontzagatik edo izatezko bikote gisa erregistratzeagatik, egun natural 1.
- e) Seme-alabak jaiotzen direnean edo adoptatzen direnean, une bakoitzean indarrean dagoen araudian xedatutakoari jarraituko zaio (gaur egun, lan-kontratua etengo da, eta martxoaren 1eko 6/2019 Errege Lege Dekretuan ezarritako prestazioa jasoko da, enpleguan eta okupazioan emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko premiazko neurriei buruzkoa).

Adierazitako prestazioa desagertzen bada, Hitzarmen Kolektiboaren aurreko testuetako e) atalean zegoen lizentzia berreskuratuko da, hau da, semea edo alaba jaiotzen edo adoptatzen bada, 3 lanegun. Egun horietako bat baliatzeko aukera atzeratu ahal izango da, gehienez ere 15 egun naturaleko epean. Zesarea bidez egiten bada, bi lanegun gehiago.

- f) Ezkontzen bada edo erregistro eskudunean izatezko bikote gisa inskribatzen bada: 18 egun natural.
- g) Nortasun-agiria, gidabaimena, eta zitazio ofizialak: hartarako behar den denbora emango da lanaldia eta dokumentu publikoak ematen dituzten zentroyen irekitzeko eta ixteko ordutegia bat badatoz.
- h) Gizarte Segurantzako espezialisten kontsultara joateko, langileak behar duen denbora guztia, kontsulta-orduak lanaldiarekin bat badatoz eta kontsulta hori medikuntza orokorreko mediku batek agintzen badu. Horretarako, langileak mediku-agindu horren egiaztagiria aurkeztu beharko dio aurrez enpresaburuari. Gainerako kasuetan, urte bakoitzean 16 ordu arte hartu ahalko dituzte; kasu horietan barne hartuta daude ezkontideari, izatezko bikotekideari eta langilearekin bizi diren seme-alabei eta gurasoei medikuaren kontsultetara laguntzea, betiere behar bezala egiaztatuta. Gizarte Segurantzak eskaintzen ez duen tratamenduren bat bada, mediku espezialistaren kontsultatzat hartuko da.
- i) Etxebizitzaz aldatzeagatik, 2 egun natural.
- j) Oporraldia eta ezkontzagatiko lizentzia aldi berean badira, bi aldiak batuko dira. Nolanahi ere, langileak aldeztatik jakinaraziko dio Enpresari ezkondu behar duela.
- k) Ezkontidea, izatezko bikotekidea, seme-alabak eta gurasoak, odolkidetasunezkoak zein ezkontzazkoak, ospitale edo kliniketako larrialdietara joandako kasuetan: gorabehera hori benetako lanalditik kanpoko orduetan bada, eta ospitalean egotea eta medikuen sorospena 4 ordu edo gehiago luzatzen bada, langileak lanaldiaren erdia hartzeko eskubidea izango du hurrengo lanaldia hastean. Egoera hori lanaldiaren barnean gertatzen bada, behar duen denbora hartuko du langileak.

Artikulu honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, izatezko bikotetzat hartuko dira ezkontzeko aukera izanik ezkondu ez, eta lizentzia hartu aurretik gutxienez sei hilabete-ko bizikidetzat behar bezala frogatzen duten bikoteak, izatezko elkartearen erregistro ofizialik ez badago.

2. Ordaindutako lizentziak honako kontzeptu hauen arabera ordainduko dira:
 - Soldata, oporraldiaren egun naturalei dagokiena.
 - Dagokion antzinasun-plusa.
 - Hitzarmen Plusa.
 - Bedaux eskalako 80 puntuko errendimenduari dagokion ekoizpen-saria.
 - Langile bakoitzak eduki ditzakeen lansari-kontzeptuak.

8. Aparteko orduak eta txandakako lana

1. Gaur egun dagoen langabezia-egoera kontuan izanda, eta lana sortzea bultzatuko duen politika solidarioa sustatzearen, aparteko ordu arruntak kentzea erabaki da.

2. Era berean, aurreko irizpideari balio osoa emateko, langileen ordezkariak eta Enpresak honako hau elkarrekin aztertzea gomendatzen da: indarrean dauden kontratazio-motak erabiliz kontratu berriak egiteko aukera, kendutako aparteko orduen ordezkari.

3. Gorago adierazitako lan-helburuaren eta gai horri buruzko nazioarteko esperientzien arabera, positibotzat jotzen da egiturazko aparteko orduak dirutan ordaindu ordez, atsedeen-denbora baliokidearekin ordezkari.

4. Lan Harremanen Kontseiluaren (LHK) akordioa erreferentzia gisa hartuta, akordio horretako 1. artikulua honako hau dio:

«Aparteko orduetan lan egiteko aukera kendu egiten da, akordio honen 2. puntuan arautzen diren salbuespeneko kasuetan izan ezik».

LHKren akordioaren 2. artikulua honako hau dio:

«a) Ondorengo kasuetakoren bat gertatzen denean, betiere lanaldi arrunta luzatu ahal izango da salbuespen gisa :

Lehenengoa: Ezinbesteko kasuak, hau da, istripuei eta beste kalte ezohiko eta premiazko batzuei aurre hartu edo konponbidea eman behar zaienean». Puntu horri dagokionez, zalantzazko ezinbesteko kasuak daudenean, aplikatu aurretik Enpresa Batzordearekin hitz egitea erabaki dugu.

Bigarrena: Behar adinako aurrerapenarekin aurreikusi ezin diren arrazoiak tarteko, Enpresak behar bezala funtzionatzeko lanaldi arrunta luzatzea ezinbestekoa denean. Nolanahi ere, honako arrazoiren bat dela medio lan-soberakina langile berriak egitea ezinezkoa dela egiaztatu beharko da:

- a) Lan-denbora oso laburra izanik, kontratazio berria egitea ez delako bideragarria.
- b) Ezinezkoa delako eskatutako denboran kontratazio berriak egitea.
- c) Enpleguko Zerbitzu Publikoari laguntza eskatu ondoren, ez diotelako lanposturako behar den prestakuntza duen langilerik eskaini Enpresari.»

Era berean, ezohiko egoeratzat joko dira beheko hauek, ondorio hauetarako, lanalditik edo urteko lan-egutegitik kanpo gertatzen direnean:

- a) Kamioi bat iristea materiala kargatzera edo deskargatzera.
- b) Mantentze-lanak egitea, data zehaztu gabe.
- c) Halabeharrezko egoerak eta bezeroen ekipamenduetan izandako matxurak.

5. Hitzarmen honen 8. artikuluko 4. zenbakian aurreikusitako egoera berezian babesean egiten diren aparteko orduak lan egindako denboraren baliokide den atsedeen-denborarekin konpentsatuko dira, eta ordu libre gisa baliatuko den lanordu bakoitzeko Laneratze Haborokin Plusaren ordu erdia ordainduko da. Plus horren zenbatekoa honako kontzeptu hauen batura izango da: soldata, antzinasun-plusa, Bedaux eskalako 80 puntuko errendimenduari dagokion ekoizpen-saria, gehigarritzko ordainsari osagarria

eta langile bakoitzak eduki ditzakeen gainerako lansari-kontzeptuak. Urtearen amaieran baliatzeko orduren bat geratzen bada, nahiz eta hori ahal den neurrian eragotzi behar den, hurrengo urteko lehen hiruhilekoan baliatu beharko da nahitaez. Ezinbesteko kasuetan soilik erabaki ahal izango da diruz konpentsatzea, bai eta, LHKren akordioaren 2. puntuari aurreikusten den egoera gertatzen delako, atsedenez konpentsatzea ezinezkoa denean ere.

6. Enpresako Zuzendaritzak hileroko emango dio Enpresa Batzordeari egindako aparteko ordu-kopuruaren berri, kausak zehaztuta, eta hala badagokio, baita atalez atal orduok nola banatu diren ere. Halaber, informazio horren eta gorago zehaztutako irizpideen arabera, Enpresak eta langileen legezko ordezkariak aparteko lanorduen izaera zehaztuko dute, betiere hitzarmenean itundutakoaren arabera.

7. Langileen Estatutuaren 35.5 artikuluan ezarritakoaren arabera, egindako aparteko orduak egunero erregistratuko dira eta guztizkoa ere aterako da lansariak ordaintzeko ezarritako denboraldian; horrela, laburpenaren kopia bana emango zaio langile bakoitzari dagokion partean.

8. Ordu horiek kotizatzeari dagokionez, Enpresak legez ezarritako eginbeharrak beteko ditu.

9. Ordaindutako aparteko orduak 80 izango dira gehienez ere urte bakoitzean. Lan-arrazoiak direla-eta muga hori gainditu behar bada, lan egindako ordu bakoitza (ondoren ordu libre gisa baliatuko dena) Laneratze Haborokin Plusaren ordu erdiarekin ordainduko da. Plus horren zenbatekoa honako kontzeptu hauen batura da: soldata, antzinasun-plusa, Bedaux eskalako 80 puntuko errendimenduari dagokion ekoizpen-saria, gehigarriko ordainsari osagarria eta langile bakoitzak eduki ditzakeen gainerako lansari-kontzeptuak. Ordu hori aparteko ordua egin eta hurrengo hiru hilabeteetan baliatu beharko da, atsedenez gisara. Erabat egiaztatutako kausa dela-eta (abenduan aldi baterako ezintasun-egoeran egotea, kasu), hurrengo urteko lehenengo hiruhilekoan baliatu ahalgo dira.

Astelehenerik ostiralera egindako aparteko orduak ordu arruntaren balioaren gaineko %75eko igoserarekin ordainduko dira. Hau da, lanegun bateko aparteko ordu bat denbora baliokidearekin konpentsatuko da, edo ekonomikoki ordainduko da 1,75 ordu arruntarekin.

Larunbatean egindako aparteko orduak ordu arruntaren balioaren gaineko %100eko igoserarekin ordainduko dira. Hau da, larunbateko aparteko ordu bat denbora baliokidearekin konpentsatuko da edo 2 ordu arruntetan ordainduko da.

Igandeetan eta/edo jaiegunetan egindako aparteko orduak ordu arruntaren balioaren gaineko %125eko gehikuntzarekin ordainduko dira. Hau da, igande eta/edo jaiegunetako aparteko ordu bat denbora baliokidearekin konpentsatuko da edo 2,25 ordu arruntarekin ordainduko da ekonomikoki.

Txandakako lana. Produkzio- eta antolaketa-beharrek lan-txandak ezartzea eskatzen dutenean, txandak ez diren beste lanaldi batean lan egiten duten atal edo arloetan, txanda horiek ezarriko dira eraginpeko langileei eta Enpresa Batzordeari kontsulta egin ondoren (beharrezkoa bada), bai iraupenari dagokionez, bai kadentziari dagokionez, hori guztia Enpresa Zuzendaritzaren irizpidearen arabera. Hona hemen jarraitu beharreko urratsak:

Txandak ezarritakoan, Enpresa Batzordeari jakinaraziko zaio, eta eragiten dien langileei astebete lehenago jakinaraziko zaie. Txanda horiek aste osoan arabera antolatuko dira, asteko lehen lanegunetik hasita.

9. Heriotzagatiko edo baliaezintasunagatiko kalte-ordaina

Enpresak bizitza- eta istripu-asegurua hitzartuko du 2024rako, estaldura hauekin:

— Edozein kausak eragindako heriotza: 10.000 euro.

— Ezintasun iraunkor osoa, erabatekoa eta baliaezintasun handia: 10.000 euro.

Zenbateko horiek bi urtean behin eguneratuko dira, aurreko bi urteetako KPI erreala- ren baturari dagokion zenbatekoan. Ematen duen zenbatekoa 50 euroren multiploetara biribilduko da. Horrenbestez, lehen eguneraketa 2025. urtean egingo da.

Estaldua horiek ezin dira metatu eta elkarrekin bateraezinak dira.

10. Laneko arropa eta norbera babesteko ekipamenduak

1. Behar dutenean, honako hauek emango dizkie Enpresak langile guztiei: arropa, eskuoihal bat, botak, zapatak, eta abar.

2. Era berean, nahitaezkoa izango da beharrezkoak diren segurtasun-ekipamenduak ematea, eta arriskuen dagokion ebaluazio-arauek gomendatzen dutenean erabili beharko dira.

11. Gaixotasunagatiko edo istripuagatiko lansariak

Enpresak beheko egoera eta ehuneko hauen arabera osatuko ditu langileen aldi baterako ezintasunagatiko prestazioak, langile horiekiko lan-harremanak dirauen artean:

i) Kontingentzia profesionalak (lan-istripua edo lanbide-gaixotasuna).

Lan-istripuek edo lanbide-gaixotasunek eragindako bajei dagokienez, langile bakoitzaren eguneko soldata gordinaren %100eraino osatuko du Enpresak, kasu bakoitzean hileko zenbatekoa kontuan hartuta egindako kalkulu teorikoan oinarrituta, honako kontzeptu hauen arabera:

— Soldata.

— Antzinasun-plusa.

— Hitzarmen Plusa.

— Bedaux eskalako 80 puntuko errendimendu bati dagokion ekoizpen-saria.

— Langile bakoitzak eduki ditzakeen lansari-kontzeptuak.

ii) Kontingentzia arruntak (lanez kanpoko istripua, gaixotasun arrunta edo ospitaleratzea).

Lanez kanpoko istripuak, gaixotasun arruntak edo ospitaleratzeak eragindako bajei dagokienez, langile bakoitzaren eguneko soldata gordinaren ehuneko jakin bateraino osatuko du Enpresak, kasu bakoitzean hileko zenbatekoa kontuan hartuta egindako kalkulu teorikoan oinarrituta, honako kontzeptu hauen arabera:

— Soldata.

— Antzinasun-plusa.

— Hitzarmen Plusa.

— Bedaux eskalako 80 puntuko errendimendu bati dagokion ekoizpen-saria.

— Langile bakoitzak eduki ditzakeen lansari-kontzeptuak.

Ehuneko hori aldagarria izango da, hitzarmenak bere baitan hartzen dituen langileek ezintasun-egoera hasi aurreko seihilekoaren azken egun naturalera arte (hau da, abenduaren 31ra arte urteko lehen seihilekoan hasitako ezintasun-egoerentzat, eta ekainaren 30era arte bigarreanean hasitako ezintasun-egoerentzat) bildu duten absentismo-adierazlearen arabera, eskala honetan oinarrituta:

Absentismo-adierazlea	Osagarriaren ehunekoa (%)
%0 eta %3,80 bitartekoa	100
%3,81 eta %4,5 bitartekoa	90
%4,5etik gora	85

Kasu bakoitzean ematen duen ehunekoa dagokion ezintasun-egoera hastean zehaztuko da, eta aldatu gabe eutsiko zaio ezintasun-egoeraren lehen egunetik horren amaierara arte.

- iii) Epe luzeko aldi baterako ezintasunak.
- Kontingentzia arruntetatik (lanez kanpoko istripua, gaixotasun arrunta edo ospitaleratzea) eratorritako prozesuak hiru hilabete baino gehiagoz luzatzen badira, modu honetan osatuko da aldi baterako ezintasunagatiko prestazioa:
- Lehen hiru hilabeteetan, langileak aurreko zenbakian araututako eskalaren eta baldintzen arabera osagarria jasoko du.
 - Laugarren hilabeteke lehen egunetik aurrera, aldi baterako ezintasunaren osagarria honako baldintza hauen arabera finkatuko da:
 - Hitzarmenak bere baitan hartzen dituen langileek ezintasun-egoera hasi aurreko seihilekoaren azken egun naturalera arte (hau da, abenduaren 31ra arte urteko lehen seihilekoan hasitako ezintasun-egoerentzat, eta ekainaren 30era arte bigarrenean hasitako ezintasun-egoerentzat) bildu duten absentismo-adierazlea %0 eta %3,8 bitartekoa bada, langile bakoitzaren eguneko soldata gordinaren %100eraino osatuko du Enpresak, kasu bakoitzean hileko zenbatekoa kontuan hartuta egindako kalkulu teorikoan oinarrituta, honako kontzeptu hauen arabera:
 - Soldata.
 - Antzinasun-plusa.
 - Hitzarmen Plusa.
 - Bedaux eskalako 80 puntuko errendimendu bati dagokion ekoizpen-saria.
 - Langile bakoitzak eduki ditzakeen lansari-kontzeptuak.
 - Ehuneko hori altuagoa bada, kontzeptu horien %90eraino osatuko da.

Hiru egoeretan aintzat hartu beharreko alderdiak:

Artikulu honetan jasotako aurreikuspenak hitzarmen hau sinatu eta hurrengo egunetik aurrera hasitako aldi baterako ezintasun-egoeretan soilik izango dira aplikagarriak. Aurretik hasitako aldi baterako ezintasun-egoerak aurreko hitzarmen kolektiboan xedatutakoaren arabera arautuko dira.

Kasu bakoitzean ematen duen ehunekoa dagokion ezintasun-egoera hastean zehaztuko da, eta aldatu gabe eutsiko zaio ezintasun-egoeraren lehen egunetik horren amaierara arte.

Langilea ahalik eta lasterren sendatzeari dagokionez, Mediku Ikuskatzaileak ikusten badu langileak ez duela behar bezala jokatu eta langileak gaixotasuna luzatu nahi duenaren edo gaixo dagoenaren itxura egiten duela, Mediku Ikuskatzaileak egindako txostena Enpresak jasotzen duenean Enpresaren konturako osagarria ez du ordainduko, eta horrek langileak baja hartu zuen egunera arteko atzeraeragina izango du, eta, hala badagokio, behar diren diziplina-neurriak hartu ahal izango ditu Enpresak.

Aldi baterako ezintasunaren osagarriko absentismo-indizea ateratzean ez dira aintzat hartuko grebogatiko absentziak, langileen legezko ordezkarien ordu-kreditua, amatasun eta aitatasunagatiko prestazioak, ez eta hiru hiletik gorako aldi baterako ezintasun-egoerak ere.

Seihileko natural bakoitza bukatu ondorengo hilabeteetan, Enpresako Zuzendaritzak Hitzarmeneko langileek pilatutako absentismo-adierazlea argitaratuko du, horrek oinarri gisa balioko baitu seihilekoan aldi baterako ezintasunaren osagarriaren ehunekoa zehazteko, aurreko ataletan ezarritako irizpideen arabera.

12. Osasun-azterketa

1. Laneko Arriskuen Prebentzioko Legearen III. kapituluko 22. artikulua arabera, urtero egingo zaizkie osasun-azterketak langileei.
2. Sintomaren bat aurkituz gero langileari, behar diren analisiak egingo zaizkie berri ere.

13. Ezkontzako saria

Enpresak ezkontzako saria emango die bi urtez gutxienez zerbitzua eskaini duten eta ezkontzen diren edo dagokion erregistro zibilean izatezko bikote gisara inskribatu diren langile guztiei.

2024. urterako saria 297,92 euro izango dira. Ezkondu dela egiaztatu ondorengo lehen nominan ordainduko zaio saria ezkondu den langileari. Berariazko ziurtagiri ofiziala edo familia-liburua ekarriz egiaztatuko du langileak ezkondu dela. Zenbateko hori aurreko urteko KPI errearen arabera eguneratu ahalko da 2025etik aurrera.

Sari hori behin bakarrik jaso ahal izango da. Hortaz, bigarrenez ezkontzen diren langileek ez dute sari hori jasotzeko eskubidea izango lehen aldiz ezkontzean edo zegokion erregistro zibilean izatezko bikote gisa inskribatu zirenean jaso bazuten.

14. Antzinasunari saria

1. Enpresan 25 urteko antzinasuna duten langileei aparteko ordainsariaren zenbatekoaren pareko borondatezko haborokina ordainduko die Enpresak, hogeita hirugarren artikuluan azaltzen denaren arabera. Borondatezko haborokina inolaz ere ez da 2.664,09 euro gordinetik beherakoa izango 2024rako, eta 25 urteko antzinasuna bete-tezean ordainduko da, dagokion nominan. Zenbateko hori aurreko urteko KPI errearen arabera eguneratu ahalko da 2025. urtetik aurrera. Aurrekoa gorabehera, Enpresak bost laneguneko ordaindutako lizentzia emango du behin bakarrik. Lizentzia hori 25 urte betetzen dituen urtean baliatu beharko du nahitaez langileak, horrela egin ezean baliatzeko eskubidea galduko baitu.

2. Langileek erretiroa antzinasuneko 25 urteak bete baino lehen hartzen badute, eta 20 urteko gutxienerako antzinasuna badute, erretiroa hartzen duten unean Borondatezko Haborokin bat ordainduko die Enpresak. Haborokin hori aparteko ordainsariaren parekoa izango da, hogeita hirugarren artikuluan azaltzen denaren arabera, baina zerbitzu-denborarekiko proportzionala. (Era berean, bermatutako gutxienerako denboraldi horren arabera izango da).

15. Prestakuntza eta lanpostuz igotzea

1. Langileak onartutako Lanbide Heziketako ikastetxeetara joaten badira, eta horietako irakaskuntzak Enpresako lan-motekin edo langileek egiten duten lanarekin zerikusia badute, garraio-gastuak Enpresak ordainduko ditu, onespina eman ondoren, eta langileari ez zaio zenbatekorik deskontatuko bere lanaldiko ordu batzuk nahitaez ikasketa horietan eman behar baditu. Halaber, matrikulaziorako laguntza emango da, Enpresak onartu ondoren. Laguntza horren zenbatekoa adierazitako matrikulazioaren zenbatekoaren %50ekoa izango da.

2. Langile batek normalean goragoko lanbide-taldeko lanak egiten baditu, lanbide-talde horri dagozkion soldatak ordaindu beharko zaizkio, Langileen Estatutuaren 39. artikuluan azaltzen den bezala.

3. Egoki irizten dion moduan sustatuko du Enpresa Zuzendaritzak prestakuntza jaso nahi duten langileen prestakuntza, betiere prestakuntza horrek langileak Enpresan duen lanarekin zerikusia badu, eta ekoizpen, teknika eta kalitate eremuei dagokienez, prestakuntza horrek lana hobetzen lagun badezake.

16. Soldatak

1. 2024. urterako, 2023ko abenduaren 31n indarrean zeuden soldata-taulak Estatuko 2023ko KPI errearen – %3,10 izan zen – ehuneko baliokidea gehi %0,25 igoko dira.

2024rako soldata-etaula 3. Eranskin gisa erantsi da.

2. 2025. urterako, 2024ko abenduaren 31n indarrean dauden soldata-etaulak Estatuko 2024ko KPI erreala gehi %0,5 igoko dira.

3. 2026. urterako, 2025eko abenduaren 31n indarrean zeuden soldata-etaulak Estatuko 2025eko KPI erreala gehi %0,5 igoko dira.

4. 2027. urterako, 2026ko abenduaren 31n indarrean dauden soldata-etaulak Estatuko 2026ko KPI erreala gehi %0,5 igoko dira.

5. 2028. urterako, 2027ko abenduaren 31n indarrean zeuden soldata-etaulak Estatuko 2027ko KPI erreala gehi %0,5 igoko dira.

Estatuko KPI erreala negatiboa bada, 0 dela ulertuko da.

16.bis. Eguneratze espezifikoa

Hitzarmen kolektiboa indarrean dagoen bitartean, urtarrilaren 1ean, Team Leader prima, prestasunari eta guardiei buruzko banakako akordioen konpentsazioak urtero eguneratuko dira, aurreko urteko estatuko KPI errealaren arabera.

2024. urterako Team Leader prima urteko 3093 €gordinekoa da.

17. Antzintasuna

Langileen antzintasuna arau hauen arabera zenbatuko da:

- a) Antzintasuna zehazteko hasierako eguna langilea Enpresan sartu zenekoa izango da, edozein izanik ere lanbide-taldea.
- b) Aldizkako igoeretarako antzintasuna zenbatzeko, kontuan izango da Enpresa berean zerbitzuan emandako denbora; horri dagokionez, langileak emandako zerbitzuen truke, edo zerbitzu-eginkizunetan, lizentzietan edo lan-istripu edo gaitasunagatik bajaran egonik langileak soldata edo ordainsaria jaso duen hilabete eta egun guztiak hartuko dira benetan lan egindakotzat. Era berean zenbatuko da kargu publikoren bat edo sindikatuko karguren bat eman izanagatik hartutako nahitaezko eszedentziaren denbora. Aitzitik, borondatezko eszedentzia-egoeraren iraute-denbora ez da aintzat hartuko.
- c) Enpresan lanean emandako urte guztien arabera kalkulatu da antzintasuna, edozein dela ere langilearen lanbide-taldea. Behin-behineko langileek edo probaldia igaro dutenek Enpresaren barnean emandako zerbitzuak ere kontuan izango dira.
- d) Kaleratu dutelako edo borondatezko baja eskatu duelako langile batek Enpresa uzten badu, eta berriz ere Enpresa berean lanean hasten bada, aurreko antzintasuna aitortzeko eskubidea kontratua amaitzen denetik ondoren lanera itzultzen den arte igarotzen den denboraren arabera izango da.
- e) Antzintasun-plusa
 - i) Enpresak antzintasun-plusa ordainduko du: bosturtekoak – bost urteko aldi osoak –, aurreko ataletan (a) tik (d) ra bitartean xedatutakoaren arabera zenbatuko direnak.
 - ii) Bosturtekoak bete eta hurrengo hilabetetik aurrera zenbatuko dira.
 - iii) Antzintasun-plusaren zenbatekoa honako hau izango da:
 - Lehen bosturtekoa: 50 euro gordin hilean, 14 ordainsaritan.
 - Gainerako bosturtekoak:
 - 2024. urtea: 25 euro gordin hilean, 14 ordainsaritan.
 - 2025. urtea: 28 euro gordin hilean, 14 ordainsaritan.
 - 2026. urtea: 33 euro gordin hilean, 14 ordainsaritan.
 - 2027. urtea: 38 euro gordin hilean, 14 ordainsaritan.
 - 2028. urtea: 41 euro gordin hilean, 14 ordainsaritan.
 - 2029ko urtarrilaren 1etik aurrera, bosturtekoaren balioak hurrengo hitzarmen kolektiboan soldata-tauletarako itundu daitekeen eguneratzea izango du.
 - iv) Aldi iragankorra: aurreko hitzarmen kolektiboan aurreikusitako lotura izanda-koagatik plusaren erregulazioaren arabera, 2024ko abenduaren 31n antzintasun-plusaren urteko zenbaketan legokiekeena baino zenbateko handia-

goa jasotzen ari ziren pertsonen lehen zenbatekoaren – 2024ko abenduaren 31n lotura izandakoagatiko plusaren kontzeptuan jasotzen ari ziren zenbatekoa – eta une bakoitzean antzinasun-plusaren arabera legokiekeen zenbatekoaren artean egon litekeen alde positiboa jasoko dute.

- v) Une bakoitzean egon daitekeen urteko alde positiboa 14 ordainsaritan hainbanatuta ordainduko da, aldi baterako plusa izeneko kontzeptu berri batean.

18. Lotura izandakoagatiko plusa

Ezabatu egiten da aurreko hitzarmenaren 18. artikuluan aurreikusitako «lotura izandakoagatiko plusa», eta, horren orde, MESArentzat zerbitzuan emandako urteak ordaintzen dituen plusa sartzan da, 17. artikuluan («Antzinasuna») atal berrian aurreikusitakoa.

19. Toxikotasun-, nekagarritasun- eta arriskugarritasun-plusa

1. Hitzarmen honek eragiten dien langileei eta bereziki lan nekagarri, toxiko edo arriskutsuztat jotzen diren lanak egiten dituztenei, kontzeptu horiengatik plus bat erantsiko zaie soldatan, behean zehaztutako baldintzetako bat betetzen bada.

Denboraren arabera ordainketa-taula:

Ordu bat edo gutxiago: benetako denbora.

> ordu 1: 4 ordu.

> 4 ordu: eguneko lanaldi osoa.

2. Balio bakar bat ezarri da plus hori dagokien langile guztientzat, hots, 1,95 euro gordin orduko (2024ko balioa; balio hori urtero eguneratuko da soldata-igoerari buruzko atalean ezarritakoaren arabera). 2024ko ekitaldian zenbateko handiagoa jasotzen duten langileek zenbateko hori jasotzen jarraituko dute, harik eta hurrengo igoerak egin ondoren 1,95 euro gordin orduko zenbatekoak arestian adierazitako norberaren zenbatekoa gainditu arte.

20. Gaueko lanaren plusa

Kontzeptu horiengatik plus bat ezartzen da langile guztientzat. Plus hori gaueko ordutegian benetan lan egindako ordu bakoitzeko zenbateko gordin jakin bat ordaintzean datza, hau da, 22: 00etatik 06: 00etara bitarte.

Zenbateko hori 3 euro gordinetara izango da 2024ko ordu bakoitzeko:

2025eko urtarrilaren 1etik aurrera, zenbateko hori urtero eguneratuko da (urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean), soldata-tauletarako aurreikusitako soldata-eguneratzearen ehunekoaren arabera – 16. artikulua –.

21. Beste plus eta osagarri batzuk

21.1. Txandakako lanaren konpentsazio-plusa

2024ko urtarrilaren 1az geroztiko ondorioekin, txandakako lanean diharduten langileek «txandakako lanaren konpentsazioa» izeneko ordainsari osagarria jasoko dute, erregimen horretan benetan lan egindako egun bakoitzeko 15,94 euro gordinetara.

Ordainsari osagarri hori soldata-taulak igotzen diren ehuneko berean igoko da hitzarmenaren indarraldiko urte bakoitzean, 2024an eguneratutako zenbatekoa (15,94 euro gordin) abiapuntu hartuta.

21.2. Ekoizpen-saria

21.0.1. Sarrera

2024ko urtarrilaren 1az geroztiko ondorioekin, ekoizpen-saria eta gertakariak konpontzeko sistema behean jasotako baldintzen arabera arautuko dira.

21.0.2. Ekoizpen-saria: eratze-baldintzak eta galdagarritasuna

- Hitzarmen honen aplikazio-eremuan dauden eta beren lana denbora kontrolatuko zereginetan egiten duten langile guztiek Bedaux eskalako 80 puntuko produkzio-prima jasoko dute.

2019ko urte naturalean langile jakin batentzat lortutako Bedaux puntuen batez bestekoa 80 baino handiagoa bada, batez besteko horren baliokidea izango da langile horren produkzio-prima.

- Hitzarmen honen aplikazio-eremuan dauden eta kontrolatu gabeko denborekin lan egiten duten langile guztiek Bedaux eskalako 80 puntuko produkzio-prima jasoko dute.

21.3. Urteko sari aldagarria

Hitzarmen honek eragiten dien langileek urteko sari aldagarri bat jaso ahalko dute, Enpresaren helburu estrategiko jakin batzuk betetzearekin lotuta, jarraian adierazitako baldintzetan.

- Erreferentziako zenbatekoa: 900 euro gordin urtean.
Zenbateko horretatik, urteko 450 euro gordin kontsolidatutzat joko dira —eta, beraz, ez dute inolako helbururik bete beharko—. Zenbateko kontsolidatuak ez du inolako eguneratzerik edo gehikuntzarik izango.
- Helburua: hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean, zati aldakorra – urteko 450 euro gordin – honako helburu hau betetzeari lotuta egongo da:

KE: 450 euro gordin urtean, enpresa osoan KE adierazlearen urteko helburua lortzeari lotuta.

Zati aldakorra urtero eguneratuko da, hitzarmen honetako soldata-taulak eguneratzen diren ehuneko berean.

Hau izango da KE helburua:

2024: %60.

2025: 2024ko KE erreal + %10.

2026: 2025eko KE erreal + %7.

2027: KE erreal 2026 + %6.

2028: 2027ko benetako KE + %6.

Urte jakin batean lortutako KEaren balioa urte horretarako KEaren helburuaren %97tik %99,99ra bitartekoa bada, enpresak 150 euro gordin ordainduko ditu urte horri dagokion urteko prima aldakorraren zati aldagarri gisa.

Lortutako balioa %97 baino txikiagoa bada, urteko primaren zati aldakorra 0 izango da.

Urte jakin batean lortutako KEaren balioa urte horretarako KEaren helburuaren %103 edo gehiago bada, enpresak 550 euro gordin ordainduko ditu urte horri dagokion urteko prima aldakorraren zati aldagarri gisa (lehen adierazitako 450 euroen ordezt).

Azalpen hobea emateko, laburpen-taula hau egin da 2024ko balioekin:

Plantaren urteko KE emaitza guztira	Urteko Prima aldakorra (€)	Urteko Prima finkoa (€)	Guztira (€)
< %97	0	450	450
≥ %97 - ≤ %99, 99	150	450	600
= %100	450	450	900
≥ %103	550	450	1.000

- Salbuespen gisa, 2024an, urte honetarako ezarritako KE helburua (%60) betetzen ez bada, enpresak 100 euro gordineko zenbatekoa ordainduko du ordainketa bakarrean, 2024ko urteko prima aldakorraren zati aldagarri gisa. Ordainketa bakar eta salbuespenezko hori ez da kontsolidagarria izango hurrengo urteetan.

- Eskakizun-baldintzak: aipatutako helburua betetzeko langile bakoitzari legokiokeen zenbatekoa (gehi zenbateko finkatua, kasu guztietan jasoko dena) sortzape-naren hurrengo urteko urtarrileko nominarekin batera ordainduko da.

22. Aparteko ordainsariak

1. Hitzarmen honek eragiten dien langileek bi aparteko ordainsari eratuko dituzte urtero, eta honako data hauetan jasoko dituzte:

- Ekaineko nomina ordaintzen den egunean, 30 eguni dagokion zenbatekoa.
- Abenduko nomina ordaintzen den egunean, 30 eguni dagokion zenbatekoa.

2. 2024. urteko aparteko ordainsariak honako hauen arabera ordainduko dira: hitzarmen-soldata gehi antzinasun-plusa, gehi langile bakoitzak eduki ditzakeen konzeptuak eta 1.059,70 euro gordinoko osagarria.

3. Osagarri horri soldata-taletan aplikatzen den igoera bera aplikatuko zaio hitzarmenaren indarraldiko hurrengo urteetan.

4. Aparteko ordainsari horiek lan egindako denboraren arabera ordainduko dira, eta ordainsari bakoitza eratzten den urtearen seihileko naturalen arabera hainbanatuko da.

23. Ordainsari malgua

Hitzarmen kolektibo honen aplikazio-eremuan sartzen diren langileek beren urteko edo hileko ordainsari gordinaren zati bat gauzatan jasotzeko eskatu ahal izango dute, enpresan une bakoitzean indarrean dauden baldintzetan (gaur egun Seflex programan definituta daude).

Nolanahi ere, langile bakoitzak gauzatan jasotzea eska dezakeen ordainsariaren zenbatekoa edo ehunekoak unean-unean aplika daitezkeen legezko mugen mende egongo da (gaur egun, Langileen Estatutuaren 26.1 artikuluan aurreikusitakoak).

Xedapen hau benetan aplikatzean enpresa-hornitzaileekin lankidetzan aritu beharra dagoenez eta horri buruz indarrean dauden programak egokitu behar direnez, artikulua hau 2024ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean.

24. Enpresa batzordeko kideentzako ordu-kreditua

1. Ordu-kreditua. Enpresa Batzordeko kide bakoitzak dagozkion hileko orduak izango ditu, 24.2 artikuluan azaltzen denaren arabera. Ordu horiek gainditzen baditu, hurrengo hilabeteko edo hilabeteetako orduekin konpentsatuko dira, baldin eta ordu horiek konpentsatzeko hurrengo hilabetea nahikoa ez bada.

2. Enpresa Batzordeko kide bakoitzak bere karguan jarduteko, ordaindutako ordu hauek izango ditu hilean:

- 100 langilera arte: $15 + 5 = 20$ ordu.
- 101 langiletik 250 langilera bitarte: $20 + 5 = 25$ ordu.
- 250 langile baino gehiago: 40 ordu.

3. Enpresa Batzordeko kideek orduak gehitu ahal izango dizkiete hilabete horretako orduei, 30 ordura arte gehienez ere, sindikatuak eskatutako prestakuntza-ikastaroetara edo biltzarretara joateko, eta urtean behin bakarrik. Betiere, 15 eguneko aurrerapenez eman beharko dio deialdiaren berri enpresaburuari. Gehitutako ordu horiek hurrengo hilabeteko edo hilabeteetako ordu-kredituarekin konpentsatuko ditu, eta, horretarako, Langileen Estatutuan ezarritako soberako ordu-kreditu osoa erabiliko du.

4. Ordu-kreditua erabili aurretik asmoa jakinarazi beharko da beti, lana antolatua ahal izateko.

25. Batzarrak

Langileen Estatutuaren 77. artikuluan xedatutakoaren arabera, Enpresa Batzordeak deitu ahal izango ditu batzarrak, bai eta gutxienez plantillaren ehuneko hogeita hamahiruko langileek ere.

Batzar horien deialdiak gai-zerrenda barne hartu beharko du, eta gutxienez 24 ordu lehenago jakinarazi beharko zaio enpresari. Enpresak jakinarazpen hori jaso izanaren berri eman beharko du. Batzar horiek enpresako langile guztientzat izango dira.

Biltzeko lekua lantokia izango da, bertako baldintzek ahalbidetzen badute, eta lan-orduetatik kanpo egingo da, enpresarekin besterik adostu ezean.

26. Lanaren antolaketa

1. Lanaren antolaketa praktikoa Enpresako Zuzendaritzaren eta ez beste inoren eskumena da. Nolanahi ere, lana antolatzeari dagokionez aldaketak ezartzeko duen eskumen hori alde batera utzi gabe, Enpresak nahi duenean baliatuko ditu langileen ordezkarien aholkuak, orientazioak eta proposamenak, Langileen Estatutuaren 64. artikuluko 5. zenbakian ezarritakoarekin bat etorritik.

2. Beren gaitasunekin bat datozen lanpostuetara egokitzeko aldia igarotakoan, langileak ez badaude ados lortutako emaitzekin, Batzorde Paritarioaren aurrean egin dezakete dagokion erreklamazioa.

3. Lana antolatzeko sistema berria ezartzeko edozein fasetan eskatu ahal izango du langileen legezko ordezkariak Batzorde Paritarioa osatzea, eta sor daitezkeen erreklamazio indibidualak edo kolektiboak haren eraginpean jarri ahal izango ditu lan-arloko jurisdikzioaren aurrean erreklamazioa egin aurretik.

4. Are gehiago, LHK-k 2003ko azaroaren 20an emandako ebazpena hitzez hitz sinatzen dugu.

«Bitartekotzaren proposamena

Lan-baldintzetan funtsezko aldaketa eragingo duen neurria aplikatuko den kasuetarako gorago azaldutako oinarriei buruzko 2.1 idatzi-zatian adierazitakoa alde batera utzi gabe, denbora berrikusteari, edo lan-antolaketa aldatzeko prozesuei dagokienez, bi aldeek erabaki dute Enpresa Zuzendaritzak Batzordeari jakinaraziko diola dagozkion azterlanak hasteko asmoa duela, bai eta erabaki hori azaltzen duten arrazoiak ere. Horrez gain, aldeko txostena egin ahal izateko behar duen dokumentazioa helarazi beharko dio».

27. Ekoizpen-arrazoiengatik aldi baterako kontratuak

Unean-unean indarrean dagoen Industria Siderometalurgikorako Bizkaiko Hitzarmen Kolektiboan xedatutakoa aplikatuko da.

28. Aldi baterako laneko enpresen bidezko kontratazioak

2024ko urtarrilaren 1etik aurrera, gehienez ere 18 hilabetera (jarrituak edo metatuak) mugatuko da aldi baterako laneko enpresen bidezko langileen kontratazioa. Gehieneko epe horren ondoren, langileak MESAk bakarrik kontratatu ahal izango ditu zuzenean, kontratu mugagabe batekin edo zuzenbidean bidezkoa den aldi baterako edozein modalitaterekin.

Aurreko muga, beraz, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera ABLEek formalizatutako hitzarmeneko langileen kontratu guztiei aplikatuko zaie, baita data horretan indarrean zeudenei ere, baldin eta, horiek amaitzean, 18 hilabeteko edo gehiagoko iraupena badute. Ez da aurreratuko 2024ko urtarrilaren 1ean aktibo dauden kontratuen iraungipenik, 18 hilabete baino gehiago izan arren.

Aldi baterako laneko enpresen bidezko kontratazioko 18 hilabeteak gaudituz ondoren, eta hitzarmen honen hasierako indarraldian, langile horiek lehentasuna izango dute plantillan kontratu bat lortzeko, baldin eta (i) bete beharreko lanpostuaren prestakuntza-eskakizunak, lanbide-esperientziakoak eta/edo hizkuntzakoak betetzen badituzte, eta (ii) enpresarentzat zerbitzuak ematen dituzten bitartean gutxienez performeraren betetze-mailaren ebaluazioa egin badute.

29. Aldizkako finkoak

Enpresan aldizkako langile finkoei aplikatu beharreko erregulazioa 2023ko ekainaren 12ko aktan enpresa-batzordearekin egindako bileran jasotako moduan eta baldintzetan arautuko da.

30. Eskubide gehigarriak

Hitzarmen kolektibo honetan aurreikusten ez den guztiari dagokionez, Langileen Estatutua aplikatuko da, bai eta legez aplikatu behar diren arauak ere.

Bi aldeek hartu dute Industria Siderometalurgikorako Bizkaiko Hitzarmen Kolektibo Probintzian berritasun gisa azaltzen diren artikulua negoziatzeko konpromisoa, baina bi aldeek arteko akordiorik ez badago, ez dira aplikatuko artikulua horiek, eta hitzarmen kolektiboan negoziatuko da berritasun hori ezarri behar den edo ez.

31. Batzorde mistoa

Hitzarmen honetan ezarritakoa interpretatu eta aplikatzerakoan aldeek artean sor litezkeen zalantzak eta desadostasunak Batzorde Mistoaren esku utzi ahalko dira, aurretiazko izapide gisa. Batzorde Mista Enpresako ordezkariak eta hitzarmen hau sinatzen duten Enpresa Batzordeko kideek osatuko dute, eta alde bakoitzak bere aldetik bozkatuko eta sinatuko ditu akordioak.

Gatazkak konpontzeari dagokionez, bi aldeek hartu dute Gatazkak Konpontzeko Prozedura (PRECO/GKP) erabiltzeko konpromisoa, hitzarmen honetan azaltzen den Batzorde Mistoak aurretiaz emandako urratsak amaitutakoan.

1. ERANSKINA
DIZIPLINA-ARAUBIDEA

Diziplina-araubide honen helburua da Enpresako elkarbizitza normala, ordenazio teknikoa eta antolamendua errespetatzen dituen lan-giroari eustea, baita langileen eta enpresaburuen eskubideak eta interes legitimoak bermatzea eta defendatzea ere.

Langile batek, zerbait egiteagatik edo zerbait ez egiteagatik, bere kontratuko lan-eginkizunen bat betetzen ez badu, Enpresako zuzendaritzak zigortu egin ahal izango du, betiere ondorengo puntuetan adierazitako falten mailakatzea errespetatuz.

Enpresari dagokio, duen zuzendaritza-ahalmena erabiliz, zigorrak ezartzea, artikuluhonetan jarritako baldintzak oinarri hartuta.

Falten zigorra jakinarazteko, idazki bat helaraziko zaio langileari. Zigorra eragin duten gertakariak eta data jarri beharko dira idazki horretan.

Jartzen den zigor ororen berri emango die Enpresak langileen legezko ordezkariet; zigorra jarriko zaion langileari jakinarazi baino lehen jakinaraziko zaie haiei.

Zigorra jarritakoan, 7 egunez luzatu ahal izango da hura gauzatzea, zigorra jarri zen egunetik zenbatzen hasita.

Enpresak eta langileek falten mailaketaren eta falta horiek eragiten dituzten zigorren berri izan dezaten, ondorio horietarako hartutako erabakia transkribatuko dugu jarraian:

Langileek egindako falta oro, garrantziaren edo asmoaren arabera, falta Arina, Astuna edo Oso Astuna izango da.

1.1. *Honako hauek dira falta arinak:*

- a) Lanera berandu iritsi edo lanetik behar baino lehenago irtetea, justifikatu gabe, hilean gehienez hiru aldiz.
- b) Inolako justifikaziorik gabe, egun batean lanera ez etortzea hilabete batean.
- c) Lanera joateko ezintasuna aldeztatik edo hurrengo hogeita lau orduetan ez jakinaraztea, salbu eta langileak hori egiterik izan ez duela egiaztatzen bada.
- d) Inolako arrazoi justifikaturik gabe, denbora-tarte laburrez lanpostua uztea, horrek pertsoneri edo gauzei aintzat hartzeko moduko kalterik eragiten badie.
- e) Bere ardurapean dituen ekipamenduak edo materialak zaindu eta mantentzeko lanean kalte arinak eragiten badira eta, beti ere, asmo txarrik ez badago.
- f) Enpresako bezeroak edo hornitzaileak ez artatzea edo behar bezala ez tratatzea.
- g) Enpresari ez ematea etxebizitza-aldaketaren edo helbide-aldaketaren berri, betiere horrek langileei edo Enpresari nahasketarik edo kalterik eragin badiezaieke.
- h) Behar den garaian ez jakinaraztea langilearen familian izandako aldaketak, baldin eta Gizarte Segurantzaren edo Zerga Administrazioan eragina badute.
- i) Nagusi batek bere funtzioak normalki betetz esandakoa, adierazitakoa edo agindutakoa ez betetzearekin lotutako faltak, baldin eta pertsoneri edo gauzei kalterik edo arriskurik eragiten ez badiete.
- j) Ohiko lanaldian prestakuntza teoriko edo praktikoko ikastaroetara ez joatea, behar bezala justifikatu gabe.
- k) Lan orduetan lankideekin, bezeroekin edo hornitzaileekin eztabaidan jardutea.
- l) Lanean mozkortuta egotea edo drogak kontsumitzea, jokabide hori ohikoa izan gabe.

1.2. *Honako hauek dira falta astunak:*

- a) Lanera berandu iritsi edo lanetik behar baino lehenago irtetea, justifikatu gabe, hilean hiru alditan baino gehiagotan.
- b) Inolako justifikaziorik gabe lanera ez etortzea bi egunetik lau egunera bitarte, hilabete batean. Lanera ez etortzeak lankidearen txandari eragiten badio, edo

Enpresari kalte garrantzitsuak eragiten badizkio, nahikoa izango da behin baka-
rrik laneratu ez izatea.

- c) Zergetan edo Gizarte Segurantzaren eragina duten datuei buruzko informazio fal-
tsua ematea edo ez aipatzea.
- d) Laneko orduetan jolasean edo denbora-pasan aritzea, behin eta berriro, eta
hala, lanaren garapenari kalte egitea.
- e) Antolamenduari dagokionez goragoko mailan dauden pertsonen aginduak ez be-
tetzea, baldin eta pertsonengan edo gauzetan eragin handia badu.
- f) Txukuntasunik eta garbitasunik eza, lankideen kexa justifikatuak eragiten baditu,
betiere alde aurretik Enpresak dagokion ohartarazpena egin badio.
- g) Beste langile bat ordezkatzeari, laneko sarrera edo irteerako erregistroak eta kon-
trolak aldatuz.
- h) Lanean behin eta berriz zabarkeriaz edo arduragabekieriaz jardutea eta horrek
laneko martxa onari eragitea, betiere pertsoneri edo gauzei kalte handia egiten ez
badie.
- i) Enpresaren baimenik gabe lan partikularrak egitea lanaldiaren barnean, baita
Enpresako tresnak, lanabesak eta makineria edo ibilgailuak norberaren erabile-
rarako edo beste batentzat erabiltzea ere, nahiz eta lanalditik kanpo izan.
- j) Hiruhileko batean eta zigorra edukita, falta arin bat behin baino gehiagotan egi-
tea (garaiz ez etortzea salbu), mota desberdinekoa izan arren.
- k) Langileen askatasun sexualaren aurkako eraso guztiak, ahozkoak zein fisikoak
direla, intimitatearen errespetu falta dela edo pertsonen duintasunaren errespetu
falta dela.
- l) Mozkortuta egotea edo drogak kontsumitzea, hori ezohikoa izanik ere, baldin
eta horrek lanean eragin negatiboa badu, edo langileen laneko segurtasuna eta
osasuna babesteko mailan kalte edo arriskuren bat eragiten badu.

1.3. *Honako hauek dira oso falta astunak:*

- a) Lanera berandu iristea edo lanetik behar baino lehenago irtetea, inolako justifika-
ziorik gabe, hilabete batean hamar aldiz baino gehiagotan, edo urtebetean hogei
aldiz baino gehiagotan.
- b) Hilabete berean bata bestearen segidako hiru egunetan edo tartekako bost egu-
netan inolako justifikaziorik gabe lanera ez etortzea.
- c) Izendatutako egitekoetan iruzur egitea, leialtasun ezaz jokatzeari edo konfiantzaz
aprobetxatzeari edo lankideei edo edozein pertsonari lapurtzea, indarkeriaz nahiz
gabe, Enpresaren egoitzan edo beste edozein lekutan, lanordutan bada.
- d) Gaixorik egotearen edo istripua eduki izanaren itxura egitea. Adierazitako edo-
zein arrazoiengatik langilea bajaran egonik, edozein motatako lanak egiten baditu
bere kontura edo beste baten kontura, laneko arau-haustetzat hartuko da. Oso
falta astuntzat hartuko da, halaber, istripuagatik edo gaixo egoteagatik baja luza-
tzeko egindako manipulazio oro.
- e) Zerbitzua edo lanpostua justifikaziorik gabe uztea, denbora gutxirako bada ere,
baldin eta, horren ondorioz, Enpresari edo lankideei kalte handiak eragiten ba-
dizkie, segurtasuna arriskuan jartzen badu edo istripua eragiten badu.
- f) Isilpean gorde beharreko Enpresako sekretuak haustea edo urratzea.
- g) Enpresari bidegabeko lehia ekartzen dioten jarduerak egitea.
- h) Lan-errendimendu normala edo itundutako lan-errendimendua nahita edo modu
jarraituan gutxitzea; berme moduan ezartzen da Batzorde Paritarioak ofizios jar-
dunگو duela.
- i) Nagusiei, beren senitartekoei, lankideei, hornitzaileei edo bezeroei hitzez edo
egitez tratatu txarrak ematea edo haiekin errespetu edo begirune ezaz jokatzeari.

- j) Nahiz eta ezberdina izan, beste falta astun bat egitea, betiere faltak bi hilabeteko denboraldian egin badira, eta zigorra jarri bazaie.
- k) Laneko edozein gairi dagokionez, nagusien aginduak ez betetzea, horrek Enpresari edo lankideei kalte nabarmenik eragiten badie; salbuespena izango da zuzendarien, nagusien edo erdi-mailako agintarien egintzak agintekeriaz egin badira, legezko aginduak nahita hautsi badituzte, eta langileari kalterik eragiten badiote.
- l) Sexu-askatasunaren aurkako ekintzak, nagusitasun-egoeraz baliatuz egiten badira, edo egoera pertsonalagatik edo lanekoagatik ahulen diren langileei egiten bazaizkie.

Adierazitako faltak egiteagatik jar daitezkeen gehieneko ZIGORRAK honako hauek izango dira:

- *Falta Arinengatik*: Idatziz ohartaraztea edo kargu hartzea.
- *Falta Astunengatik*: Idatziz ohartaraztea edo kargu hartzea. Bi eta hogeit hamar egun bitarteko enplegu-soldataren etenaldia.
- *Oso falta Astunengatik*: Idatziz ohartaraztea edo kargu hartzea. Hogeita batetik hirurogei egunera bitarteko aldiaren enplegua eta soldata kentzea. Kaleratzea.

Falta horien preskripzioa Enpresak faltaren berri duen egunetik aurrera zenbatzen hasiko da, edo, bestela, falta egin eta handik hiru hilabetera.

2. ERANSKINA
LANBIDE-SAILKAPENA

Lanbide-taldea	Sartzen diren kategoriak edo lanpostuak, orientazio gisara
1*	Sistemen analistak (goi-mailako tit.) Arkitektoak Arlo eta zerbitzuetako zuzendariak Ingeniariak Lizentziadunak
2*	Proiektugileak Osasun Laguntzaile Teknikoak edo Erizaintzako Unibertsitate Diplomadunak Arkitekto teknikoak (aparejadoreak) Ingeniari teknikoak (perituak) Lan-harremanetako gradudunak edo diplomadunak Ingeniaritza eta arkitekturako laguntzaileak Sarrerako goi-mailako tituludunak (1)
3	Analista programatzailea Delineatzaile proiektugilea Marraskilari proiektugilea Arlo eta zerbitzuetako buruak Lantegiko burua (kualifikatutako prest.) Industri maisua 1. mailako administrazioburua 2. mailako administrazioburua Laborategiko burua Tailerreko maisua
4	1. mailako delineatzailea Teknikari administraria Laborategiko Teknikaria 1. mailako antolaketa-teknikaria Arduradunak Ofizio bereziko profesionalak 2. mailako maisua
5	2. mailako delineatzailea Saltzailea (bidaiaria) Kamioi-gidaria Taldeko koordinatzailea 1. mailako ofizial administraria 2. mailako ofizial administraria 2. mailako antolaketa-teknikaria 1. mailako ofizialburua 1. mailako ofiziala 2. mailako ofiziala 1. mailako siderometalurgiako lang. 2. mailako siderometalurgiako lang.
6	Biltegizaina Laguntzaileak, oro har Jendaurreko saltzailea Ordenagailu-operadorea Telefonista Turismo-gidaria Makina-gidaria Laguntzaile tekniko eta administraziokoa 3. mailako ofiziala 3. mailako siderometalurgiako lang.

Lanbide-taldea	Sartzen diren kategoriak edo lanpostuak, orientazio gisara
7	Peoi arrunta Peoi espezializatua Mandataria Atezaina 16 urteko ikastuna 17 urteko ikastuna 18 urteko gorako ikastuna (1., 2. eta 3. urteak) Sarrerako taldea: 6. taldeko kategoria edo lanpostuak MESAn eta lanpostu berean 2 urte baino gutxiagoko esperientzia duten langileentzat.

*** Ohar argigarria.**

Hitzarmen kolektiboaren bigarren artikuluan xedatutakoaren arabera, 1. eta 2. lanbide-taldeak hitzarmenaren aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira.

- 1) Sarrerako goi-mailako tituludunak: goi-mailako tituludunak eta lizentziadunak oro har, hasieran, formalizatutako kontratu-mota edozein dela ere (finkoa, praktikoa, etab.), enpresetan alde aurreko esperientziarik ez dutenak, eta egokitzapen-aldi bat behar dutenak, gehienez ere 12 hilabetekoa, 1. lanbide-taldean saikatzeko eskatzen diren irizpide orokorrak betetzeko.

Banaketa-irizpideak

— 1. lanbide-taldea (Hitzarmenaren aplikazio-eremutik kanpo)

Talde honetako langileek erantzukizun zuzena dute Enpresako funtzio-eremu baten edo batzuen kudeaketan, edo konplexutasun- eta kualifikazio-maila handieneko zeregin teknikoak egiten dituzte. Erabakiak hartzen dituzte edo haietan parte hartzen dute, eta helburu konkretuak zehazten laguntzen dute. Autonomia, ekimen eta erantzukizun handiz betetzen dituzte beren zereginak.

Prestakuntza: goi-mailako unibertsitate-titulua edo Enpresak aitortutako ezaguera baliokideak, ikasketa espezifikoein osatuta, edo eskarmentu handia bere lanbidean.

— 2. lanbide-taldea (Hitzarmenaren aplikazio-eremutik kanpo)

Zeregin tekniko konplexuak gauzatzen dituzte, autonomia-, ekimen- eta erantzukizun-maila handiarekin eta helburu global zehaztuekin, edo zeregin horiek eduki intelektual handia dute, edo giza harremani lotutakoa. Talde honetan daude, orobat, funtzio-eremu bateko lankideek egindako zereginak integratu, koordinatu eta ikuskatzearen zuzeneko ardura dutenak.

Prestakuntza: erdi-mailako unibertsitate-titulua edo Enpresak parekidetutako ezaguera baliokideak, baita esperientzia zabala ere beren lanbide-sektoreko eginkizunetan.

— 3. lanbide-taldea

Aginte-erantzukizunarekin edo gabe, adimen-jarduerari eta giza harremani dago-kienez erdi-mailako edukia duten zereginak egiten dituzte, erdi-mailako konplexutasuna duten jarraibide zehatzen esparruan, baina prozesuaren barruan autonomia dutela. Laguntzaile-talde batek egindako zeregin homogeneoak integratzea, koordinatzea eta ikuskatzea dakarten eginkizunak betetzen dituzte, antolamendu-maila txikiago batean.

Prestakuntza: goi-mailako prestakuntza-zikloaren baliokidea den titulua, edo goi-mailako moduluarena, edo Enpresak aitortutako ezaguera baliokideak, edo lanpostu horren gaineko prestakuntza, edo lanbidea gauzatzean eskuratutako jakintzak.

— 4. lanbide-taldea

Beren kabuz egin beharreko lanak egiten dituzten langileak; lan horietarako ekimena eta arrazoimena behar dute langileek eta, beste norbaiten gidaritzapean, zeregin horien erantzukizuna dutenak.

Prestakuntza: goi-mailako prestakuntza-zikloaren baliokidea den titulua, edo goi-mailako moduluarena, edo Enpresak aitortutako ezaguera baliokideak, edo lanpostu horren gaineko prestakuntza, edo lanbidea gauzatzean eskuratutako jakintzak.

— 5. lanbide-taldea

Enpresa bakoitzeko eskemaren barruan, kualifikazio handiagoko agintari edo langileen mende egiten diren zereginak gauzatzen dituzte; oro har ikuskaritza-maila handia izaten da, baina langileek zenbait ezaguera dituzte lanbideari buruz, eta moldaketa-aldi ertain bat igarotzen dute.

Prestakuntza: goi- edo erdi-mailako prestakuntza-zikloaren baliokidea den titulua, edo aitortutako ezaguera baliokideak, edo lanpostu horren gaineko prestakuntza, edo lanbidea gauzatzean eskuratutako jakintzak.

— 6. lanbide-taldea

Mendekotasun-maila handiz gauzatzen diren zereginak, modu argian ezarriak eta jarraibide zehatzekin. Ezer baino gehiago ahalegin fisikoa eska dezakete, eta prestakuntza gutxi edo oso oinarrizko ezaguerak behar dituzte, nahiz eta, batzuetan, egokitzapen-epe labur bat behar dezaketen.

Prestakuntza: goi- edo erdi-mailako prestakuntza-zikloaren baliokidea den titulua, edo aitortutako ezaguera baliokideak, edo lanpostu horren gaineko prestakuntza, edo lanbidea gauzatzean eskuratutako jakintzak.

— 7. lanbide-taldea

Talde honetan sartuko dira jarraibide zehatz eta argi ezarritakoekin egikaritzen diren zereginak egiten dituzten langileak, mendekotasun-maila handiarekin; zeregin horiek ezer baino gehiago ahalegin fisikoa edo arreta eskatzen dute, eta ez dute behar ez prestakuntza espezifikorik ez eta egokitzapen-eperik ere.

Prestakuntza: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) edo eskola-ziurtagiria edo baliokidea, bai eta bere lanbidea gauzatzean eskuratutako ezaguerak ere.

Halaber, lanbide-talde hau sarrera-taldea izango da 6. lanbide-taldeari dagozkion zereginetan diharduten baina MESAn lanpostu batean zeregin hori behar bezala betetzeko beharrezkoa den esperientzia ez duten langileentzat.

Hala, bada, lanbide-talde honetan geldituko dira beharrezko prestakuntza duten eta 6. lanbide-taldeari dagozkion eginkizunak betetzen dituzten langileak MESArentzat lanpostu berean zerbitzuak ematen dituzten lehen bi urteetan (etenik gabe edo metatuta, eta edozein kontratu-motaren bidez).

MESAn bi urtez lanpostu berean lanean aritu ondoren, langile hori automatikoki igoko da 6. lanbide-taldera.

3. ERANSKINA
2024KO SOLDATA-TAULAK

Eranskin honetan adierazitakoa izango da 2024. urteko soldata-aula.

Soldata-aula hauetan jasotako balioak hitzarmen honek eragiten dien langile guztiei aplikatuko zaizkie; horrenbestez, hitzarmena sinatu ondorengo hilean hasiko dira konzeptuak eta ordainsariak egokitzeko lanak, hitzarmena ahal bezain laster ezartzeko.

Gaur egun ad personam osagarri bat jasotzen ari diren langileek osagarri horri eutsiko diote.

Ad personam osagarri hori ezingo da ez xurgatu ez eta konpentsatu ere, eta hitzarmeneko soldata-igoeren atalean ezarritakoaren arabera eguneratuko da.

Era berean, soldata-aula hauetan ezarritakoa baino puntu-balio handiago batez kalkulaturako ekoizpen-saria jasotzen duten langileek puntu-balio horri eutsiko diote, banan-banan onuragarriago den baldintza gisara. Ad personam osagarria bezala, puntu-balio hori hitzarmeneko soldata-igoeren atalean ezarritakoaren arabera eguneratuko da.

2024KO SOLDATA-TAULAK


Lanbide-taldeak		Eguneko oinarritzko soldata (€)	Eguneko hitzarmen-plusa (€)	Aparteko ordainsariaren osagarria (€)	Sariaren puntu-balioa (€)
7	Sarrerako Taldea	Egunekoa	Egunekoa	Urtekoa	
	Peoi arrunta	38,93	16,53	2.119,41	0,1633
	Peoi espezialista				
	6. taldekoak eta MESAn lanpostu berean 2 urtetik beherako esperientzia dutenak				
	Ordenantza	Hileko oinarritzko soldata (€)	Eguneko hitzarmen-plusa (€)	Aparteko ordainsariaren osagarria (€)	Sariaren puntu-balioa (€)
	Atezaina	Hilekoa	Egunekoa	Urtekoa	
	16 urteko ikastuna	1.184,46	16,53	2.119,41	0,1633
	17 urteko ikastuna				
	18 urtetik gorako ikastuna (1., 2. eta 3. urteak)				
	6. taldekoak eta MESAn lanpostu berean 2 urtetik beherako esperientzia dutenak				
6	3. mailako ofiziala	Eguneko oinarritzko soldata (€)	Eguneko hitzarmen-plusa (€)	Aparteko ordainsariaren osagarria (€)	Sariaren puntu-balioa (€)
	3. mailako siderometalurgiako profesionala	Egunekoa	Egunekoa	Urtekoa	
		40,77	17,32	2.119,41	0,1771
	Biltegizaina	Hileko oinarritzko soldata (€)	Eguneko hitzarmen-plusa (€)	Aparteko ordainsariaren osagarria (€)	Sariaren puntu-balioa (€)
	Laguntzaileak, oro har	Hilekoa	Egunekoa	Urtekoa	
	Saltzailea	1.240,54	17,32	2.119,41	0,1771
	Ordenagailu-operadorea				
	Telefonista				
	Turismo-gidaria				
	Makina-gidaria				
Teknikari laguntzailea eta Administraria					

Lanbide-taldeak		Eguneko oinarritzko soldata (€)	Eguneko hitzarmen-plusa (€)	Aparteko ordainsariaren osagarria (€)	Sariaren puntu-balioa (€)
	1. mailako ofiziala	Egunekoa	Egunekoa	Urtekoa	
	2. mailako ofiziala	43,74	18,32	2.119,41	0,1903
	1. mailako siderometalurgiako profesionala				
	2. mailako siderometalurgiako profesionala				
	1. mailako ofizial burua				
	2. mailako delineaatzailea	Hileko oinarritzko soldata (€)	Eguneko hitzarmen-plusa (€)	Aparteko ordainsariaren osagarria (€)	Sariaren puntu-balioa (€)
	1. mailako ofizial administraria	Hilekoa	Egunekoa	Urtekoa	
	2. mailako ofizial administraria	1.331,06	18,32	2.119,41	0,1903
	Saltzailea (bidaiaria)				
	Kamioi-gidaria				
	Taldeko koordinatzailea				
	2. mailako antolaketa-teknikaria				
4	1. mailako delineaatzailea	Hileko oinarritzko soldata (€)	Eguneko hitzarmen-plusa (€)	Aparteko ordainsariaren osagarria (€)	Sariaren puntu-balioa (€)
	Teknikari administraria	Hilekoa	Egunekoa	Urtekoa	
	Laborategiko teknikaria	1.559,48	21,03	2.119,41	0,2423
	1. mailako antolaketa-teknikaria				
	Arduradunak				
	Ofizio bereziko profesionalak				
	2. mailako maisua				
	Analista Programatzailea	Hileko oinarritzko soldata (€)	Eguneko hitzarmen-plusa (€)	Aparteko ordainsariaren osagarria (€)	Sariaren puntu-balioa (€)
	Delineatzaile proiektugilea	Hilekoa	Egunekoa	Urtekoa	
	Marrazkilari proiektugilea	1.624,58	22,18	2.119,41	0,2523
	Arlo eta zerbitzuetako burua				
	Tailerreko burua (prestakuntza kualifikatua)				
	Industria-maisua				
	1. mailako administrazio-burua				
	2. mailako administrazio-burua				
	Laborategiko burua				
	Tailerreko maisua				

Afiliatu nahi baduzu sartu hemen

Si quieres afiliarte entra aquí

<http://www.lab.eus/afiliatu>



LAB⁷

**EUSKAL
SINDIKALISMO
ERALDATZAILEA**

LAN HITZARMENA CONVENIO COLECTIVO

MESA (Manufacturas Eléctricas)-en HITZARMEN KOLEKTIBOA

Convenio Colectivo de
MESA (Manufacturas Eléctricas)

2024-2028



SECCIÓN III
ADMINISTRACIÓN AUTONÓMICA DEL PAÍS VASCO

Departamento de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad

Resolución de la delegada Territorial de Trabajo y Seguridad Social de Bizkaia del Departamento de Economía, Trabajo y Empleo, por la que se dispone el registro, publicación y depósito del Convenio Colectivo de la empresa Manufacturas Eléctricas, S.A. (código de convenio 48003082011989).

Antecedentes

Por vía telemática se ha presentado en esta delegación el acuerdo citado, suscrito en fecha 23 de diciembre de 2024 por la dirección y el comité de empresa.

Fundamentos de derecho

Primero: La competencia prevista en el artículo 90.2 de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, Real Decreto Legislativo 2/2015 de 23 de octubre («BOE» de 24 de octubre de 2015) corresponde a esta autoridad laboral de conformidad con el artículo 18.2.g) del Decreto 323/2024, de 5 de noviembre («BOPV» de 21 de noviembre de 2024) por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Economía, Trabajo y Empleo, en relación con el Decreto 9/2011, de 25 de enero, («BOPV» de 15 de febrero de 2011) y con el Real Decreto 713/2010 de 28 de mayo («BOE» de 12 de junio de 2010) sobre registro de convenios colectivos y planes de igualdad.

Segundo: El acuerdo ha sido suscrito de conformidad con los requisitos de los artículos 85, 88, 89 y 90 de la referenciada Ley del Estatuto de los Trabajadores.

En su virtud,

RESUELVO:

Primero: Ordenar su inscripción y depósito en la Sección Territorial de Bizkaia del Registro de Convenios Colectivos, con notificación a las partes.

Segundo: Disponer su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

En Bilbao, a 2 de junio de 2025. — La Delegada Territorial de Bizkaia, Verónica Fernández Fernández

1. Estabilidad en el marco de las relaciones laborales, paz social y procedimiento de resolución de conflictos

La Dirección y el Comité de Empresa convienen en la necesidad de garantizar la estabilidad en el marco de relaciones laborales y paz social en la Empresa.

A tal efecto, ambas partes acuerdan que a los efectos de lo previsto en el artículo 82.3 del Estatuto de los/as Trabajadores/as, la Empresa no podrá inaplicar las condiciones de trabajo previstas en el presente convenio colectivo salvo acuerdo con los representantes legales de las personas trabajadoras.

Como contraprestación a lo anterior, el Comité de Empresa se compromete a someter cualquier discrepancia en la interpretación y/o aplicación del presente Convenio o en la negociación del futuro Convenio, pacto o acuerdo colectivo que lo sustituya, al procedimiento de conciliación y, posteriormente, mediación establecidos en la normativa del PRECO, con carácter previo al ejercicio del derecho de huelga, descartando expresamente el arbitraje obligatorio.

De esta manera, el Comité de Empresa deberá iniciar el procedimiento de conciliación y, posteriormente, mediación establecidos en la normativa del PRECO. Una vez finalizados los mismos, ya sea «sin avenencia» (porque no se alcance un acuerdo que ponga fin a la discrepancia) ya sea «sin efecto» (porque la empresa no comparezca a pesar de haber sido citada por el PRECO), el Comité de Empresa podrá ejercitar el derecho de huelga en los términos previstos en la normativa vigente en cada momento.

Con respecto a la fase de mediación, las partes (Empresa y representación de las personas trabajadoras) acuerdan que la misma se desarrolle sin propuestas por escrito del mediador designado salvo acuerdo expreso en sentido contrario suscrito por las partes en el seno de dicha fase. Asimismo, el mediador designado no podrá emitir informe o dictamen alguno referente a una eventual huelga que el Comité de Empresa pudiera iniciar si no se resolviese la discrepancia suscitada en los procedimientos de conciliación y, posteriormente, mediación.

1 bis. Inaplicación del convenio

Ambas partes acuerdan que a los efectos de lo previsto en el artículo 82.3 del Estatuto de los/as Trabajadores/as, la Empresa no podrá en ningún caso inaplicar unilateralmente las condiciones de trabajo previstas en el presente convenio colectivo salvo acuerdo con los representantes legales de las personas trabajadoras, debiendo intentar la posibilidad de renegociar el mismo antes de su vencimiento para lograr otro que lo sustituya, o la posibilidad de revisión del mismo que prevé el artículo 86.1 del Estatuto de los/as Trabajadores/as.

En caso de que la empresa quisiera la inaplicación temporal del presente convenio colectivo (por motivos económicos, técnicos, organizativos o de producción) y no se llegara a un acuerdo con la representación de las personas trabajadoras, y los procedimientos para la resolución de conflictos según el artículo 1 del presente convenio no resolvieran la discrepancia, será necesario el acuerdo entre ambas partes (representación de la empresa y mayoría de la representación de las personas trabajadoras) para someter el desacuerdo sobre inaplicación al ORPRICCE (Órgano para la Resolución de los Procedimientos para la Inaplicación de Convenios Colectivos Estatutarios) o al organismo que en el futuro lo pueda sustituir como órgano de resolución de procedimientos de inaplicación de convenios colectivos estatutarios.

2. **Ámbito personal**

El presente Convenio afectará a todas las personas trabajadoras de la plantilla de la empresa Manufacturas Eléctricas, S.A.U., así como a los de nueva contratación, excepto al personal excluido del ámbito regulado por la Legislación Laboral (artículo 1.º 3.c) del «Estatuto de los/as Trabajadores/as»), al personal de alta dirección regulado por el Real Decreto 1.382/1.985, de 1 de agosto, y a los grupos profesionales 1 y 2.

3. **Vigencia, duración y denuncia**

El presente Convenio entrará en vigor el día de su firma, independientemente de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia». Los efectos económicos serán retroactivos al día 1 de enero de 2024.

El presente Convenio tendrá una duración de cinco años, esto es hasta el 31 de diciembre del año 2028

A los efectos de lo dispuesto en el artículo 86.3 del Estatuto de los/as Trabajadores/as, una vez finalizada la vigencia inicial del presente Convenio, su contenido se mantendrá vigente hasta que entre en vigor otro que lo sustituya.

El Convenio se considerará denunciado automáticamente el 15 de noviembre del año 2028.

La comisión negociadora quedará válidamente constituida como máximo quince días antes de la finalización de la vigencia del presente Convenio, y la presentación de las plataformas se realizará entre la fecha de finalización de la vigencia del Convenio y los quince días naturales siguientes. En ningún caso el inicio de la negociación se realizará con posterioridad al transcurso del mes de la finalización de la vigencia del Convenio.

4. **Jornada de trabajo**

4.1. *Jornada anual*

Durante la vigencia del Convenio, la jornada laboral será de 1680 horas anuales de trabajo efectivo (*), esto es, no se computará dentro de la jornada el tiempo del bocadillo ni los descansos que, en su caso, puedan realizar las personas trabajadoras (* con las excepciones que se concretan más adelante).

4.2. *Régimen de trabajo, jornada y horario*

El régimen de trabajo será, con carácter general, el siguiente:

4.2.1. Para Taller: Jornada Continua y/o Jornada a Turnos.

4.2.2. Para Oficinas: Jornada de Invierno o Jornada de Verano.

4.2.3. FAT, centro de trabajo de Erletxes, almacén central de Mungia y calidad recepción materiales.

4.2.1. Taller

1. **Ámbito de aplicación**

